

INGURUMEN URTEKARIA 08 ANUARIO AMBIENTAL

INGURUMENAREN EBALUAZIOA ETA BILAKAERA EAEN
EVOLUCIÓN Y EVALUACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE EN LA CAPV



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

© IHOBE 2008

www.ingurumena.net

www.ihobe.net

EDUKIA: Dokumentu hau prestatzeko, LKS, S. Coop. enpresaren laguntza jaso dugu.

DISEINUA: Laluca Comunicación.

ITZULPENA: Mara Mara Taldea.

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.





2007-2010 II. Ingurumen Esparru Programak jokabide arau argiak ematen ditu Euskadik iraunkortasunaren bidean aurrera egin dezan, eta horretarako, 11 helburu estrategiko eta 44 konpromiso zehazten ditu ingurumen arloko politikan. Administrazio gardena eraikitzeko asmoz, zehaztutako politikekin bat datorrena, **2008ko Ingurumen Urtekaria** aurkeztu dugu, bi helbururekin: Euskadiko ingurumenaren egoera eta bilakaera ezagutzea batetik, eta hartutako konpromisoak bete direla jakinaraztea bestetik. Bi alderdien ikuspegi osagarriak

III. Ingurumen Esparru Programako helburuez programatutako ekintzak egokiak diren edo ez zehazteko aukera ematen du.

Hain zuzen ere honako hau da **2008ko Ingurumen Urtekarriak** aurreko urteetako argitalpenekiko duen berrikuntza: dokumentu bakarrean biltzen dituela aurreko bi txostenak; hots, *Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena* eta *Ingurumen adierazleak*. Bateratze horren helburua II. Ingurumen Esparru Programaren helburuak lortzeko gure ekintzek egindako ekarpena ikusaraztea da. Ezin dugu Ingurumen Esparru Programaren gidoiari heltze soilarekin lasai gelditu; beharrezkoa da jarraitzen ari den norabidea zuzena den edo ez aztertzea, baita ezarpenaren erritmoa handitu egin behar ote den edo azken emaitzak lortzeko ekintza gehigarriak beharrezkoak ote diren ere.

Ikuspegi bateratuak ingurumen politikan aurrera egiteko eta berrikuntzak sartzeko aukera ematen du, administrazio publikoan helburukako kudeaketara hurbilduta herritarrekiko kudeaketa eraginkorragoa eta gardenagoa bilatzeko. **Ekintza** balioestea, **politikak** hobetzeko.

Dokumentu honetan, **bi ikuspegi** horiei eman diegu erantzuna, ingurumen gaietan Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailek abian jarritako ekintza nagusiak berrikusi ondoren. Eta iraunkortasunerako bidean aurrera egiten ari garen edo ez **neurtuz eta balioetsiz**, ahaztu gabe II. Ingurumen Esparru Programaren lau urtekoaren **hasierako etapan** gaudela.

Adierazleek erakusten dutenaren arabera, hobetzen ari gara oinarrizko ingurumen bektoreen kalitatea; hau da, airearena, urarena eta lurzoruarena. Desfase handiena dagoen eremuetarako, jarduera planak diseinatu ditugu, II. Ingurumen Esparru Programaren amaierarako ezarritako helburuak lortzearren. Halaber, ekoizpen sistemaren ekoeraginkortasunean pixkanaka-pixkanaka ari gara aurrera egiten, aberastasun handiagoa sor baitezakegu baliabide gutxiago xahututa eta hondakin, kutsadura eta berotegi efektuko gas gutxiago sortuta. Horrela, duela oso gutxi baino iraunkorragoak gara orain.

Baina iraunkortasunean alderdi batzuetan bakarrik aurre egitea ez da nahikoa. Aurrera egiten jarraitzeko beharra dugu, termino absolutuetan handitzen jarraitzen dutelako baliabideen kontsumoak, hondakinen sorrerak eta kutsadura orokorrak. Eta gure azken helburua ez da erlatiboa, absolutua baizik: ekonomia iraunkorra duen ongizate gizartea izatera iristea.

Esther Larrañaga

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua.

AURKIBIDEA

1

Atarikoa

Orria

1.1 Iraunkortasunerantz aurrera egiten jarraitzea, 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programaren erronka

6

1.2 Gobernantza eta kultura berria: administrazio publikoetan helburuka kudeatzea

8

1.3 Aurrera egiteko neurtzea: Ingurumen Iraunkortasun Txostena etapa berri honetan

9

2

2008 Ebaluazio Integratua:

Aurrerapen eta joera nagusiak:



3

Iraunkortasunaren alde ari al gara egiten?

Orria

Ondorio orokorrak

47

Etorkizuneko joera nagusiak

53

I. Eranskina

44 konpromisoen eta jarduera aipagarrien deskargatzea

II Eranskina

Ingurumen plan sektorialen ebaluazio trinkoa

Iraunkortasunerantz aurrera egiten jarraiteza, 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programaren erronka.

EAEko ingurumena zaintzeko 3/98 Legearen agindua betez, Jaurkitzaren Gobernu Kontseiluak **2002-2020 aldirako garapen iraunkorrerako euskal ingurumen estrategia** eta 2002-2006 aldirako lehenengo Ingurumen Esparru Programa onartu zituen 2002ko ekainaren 4an. Azken hori epe luzerako ikuspegi estrategikoaren barruan txertatu zuen, 1992an Rio de Janeiron eginiko Lurraren goi bileran lurralde bakoitzean garapen strategiak egiteko hartutako konpromisoarekin bat eginda.

Lehen Ingurumen Esparru Programak EAERI iraunkortasunerantz abiatzea ahalbidetu zion, trakzio-indarra egin baitzuen, eta ondorioz, ingurumenaren zein Gobernantzaren kalitatea hobetu zen. Hala ere, ezinbestekoa da Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren helburuak lortzeko aurrera egiten jarraitzea. Horretarako, 2007ko ekainean EAEko 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programa onartu zen. Epe motz eta ertainerako plangintza tresna berri honek **lau lehentasun** ezartzen ditu aldirako:

1. Etorkizuna ziurtatzea, **klima aldaketaren** kontra eginda eta haren ondorioetarako prestatuta.
2. Gure kapital naturala indartzea eta gure **bioaniztasuna** babestea.
3. Gure herriguneen **ingurumen kalitatea** hobetzea, pertsonen bizi kalitatea bermatzeko.
4. **Ekonomia iraunkorrerantz** aurrera egitea, kontsumo eta produkzio iraunkorraren bitartez.

Behin ikuspegia zehaztuta eta lehentasunak ezarrita, programa **44 konpromisotan** zehazten da, guztiak **11 helburu estrategikoren** inguruan bilduta:

Helburu Estrategikoak:

1. *Aire garbia.*
2. *Uraren kalitate ona.*
3. *Lurzorua kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea.*
4. *Baliabideak erantzukizunez kontsumitzea.*
5. *Energiaren kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea.*
6. *Hondakinak murriztea eta isurketarik ez egitea.*
7. *Gure aniztasun biologikoari eustea.*
8. *Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz egitea.*
9. *Lurraldearen erabilera orekatua erdiestea*
10. *Berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketak mugatzea.*
11. *Klima-aldaketara egokitzea.*

Azken finean, 2020an hurrengo belaunaldiari utziko diogun Euskadin ingurumen arazo nagusiak konpontzeko bidean egotea da planaren helburua.



Gobernantza eta kultura berria: helburuen araberako kudeaketa administrazio publikoetan

Gobernantza edo **gobernu ona** lortzeko nahitaezkoa da gobernuak proiektua hein handi batean babestea, eta horrek esan nahi du haren politikak esplizituak izan behar dutela, eta haren kudeaketa ezarritako helburuen eta lortu nahi diren emaitzen arabera ebaluatu behar dela. Ebaluazioa ez da ekitaldi bat ixtean egiten den jarduera. Etengabeko prozesua da eta kudeaketa estiloaren zati izan behar du.

Sarritan, ebaluazio sistemak, erabiltzen direnean, erabilitako **baliabideen** kudeaketan eta jarraitutako **prozesuen** ebaluazioan oinarritu dira, emaitzen eta planteaturiko helburuen lorpen mailan oinarritu baino.

Administrazio publikoek **helburuen araberako kudeaketaren** irizpideak eta metodoak txertatu behar dituzte beren kudeaketa prozeduretan. Enpresa pribatu eraginkorrek duela zenbait hamarkada txertatu dituzte irizpide horiek, beren kudeaketa metodoetan gardentasuna eta eraginkortasuna pixkanaka areagotzeko.

Helburuen araberako kudeaketak administrazio publikoen politiken helburua, estrategiak eta aurreikusitako emaitzak argi azal daitezzen eskatzen du; horrela, haien kudeaketa gardenagoa da, eta batez ere, gobernuaren jardunak hobeto ebaluatzeko azterketa elementuak ematen dira.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak zera bilatzen du horren bitartez, beren programen ebaluazio ariketak zorrotzagoak eta erabilgarriagoak izatea, konpromisoak bete direla frogatzeaz gain, haien egokitasuna ebalua dadin ezarritako helburuen eta lortutako emaitzen arteko konparaketaren arabera.

Hortaz, ebaluazio ariketa programaren etengabeko hobekuntzarako tresna bilakatzen da, proposatutako neurriak zein ezarritako jomugak berrikusita.



Aurrera egiteko neurtzea: Ingurumen iraunkortasunaren txostena etapa berri honetan.

Orain arte, 2002-2006 aldirako I. Ingurumen Esparru Programa onartu zenetik, urtean bi txosten idatzi dira: alde batetik, Ingurumen Esparru Programan jasotako konpromisoak betetzeko aurrerapenen ebaluazioa (*iraunkortasunaren ebaluazioa*). Bestetik, hainbat ingurumen adierazle kalkulatuta ingurumenaren egoeraren bilakaera.


Bi txostenen arteko loturarik eza muga argia izan da Ingurumen Esparru Programaren balorazio sistemarentzat. Konpromisoak betetzea politikak edo tresnak abian jartzea baino ez dela ulertzen bada, haiek ingurumenean izango duten eragina aintzat hartu gabe, orduan ez da nahikoa.

Ondorioz, txosten honetan aurreko Ingurumen Esparru Programaren baitan eginiko bi azterketak egiten dute bat: planaren konpromisoen segimendua eta ingurumen adierazleen araberako ingurumenaren egoeraren azterketa.

Horregatik, 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programak **ingurumen-adierazleak adierazitako 11 helburu estrategikoekin bateratu nahi izan ditu**. Hala, programaren ebaluazioaren ebaluazioa errazago egiten da, bai konpromisoen lorpenarena bai helburuen lorpenarena, ingurumen adierazleetan oinarrituta neurtzen baitira.

Beraz, hurrengo kapituluan II. Esparru Programaren 11 helburuen (eta 44 konpromisoen) ebaluazio globala aurkeztuko dugu, dagokion adierazlearen joeran oinarrituta, ezarritako helburuak lortzeko konpromiso bakoitzean egin diren jarduera nagusiak azpimarratuta. Datuak lehenengo eranskinean jarri dira.

Emaitzak modu grafiko eta intuitiboan aurkeztu dira, adierazleak azken urteetan izan duen joera erakusten duten *gezien* bitartez. Azterketa hau partziala da nahitaez, adierazleak joera positiboa izan arren, II. Ingurumen Esparru Programan ezarritako helburuak lortzeko zailak izan baitaitezke. Alderdi hori Ingurumen Esparru Programaren tarteko ebaluazioan aztertuko da.



Helburu bakoitzaren ibilbide indibidualaren ondoren, hirugarren kapituluaren baterako ebaluazio bat egin da, iraunkortasunaren bidean aurrera egiten ari ote garen galdera konplexuari erantzun sinpleak emanda. Bide hori etengabe egokitu behar dela jakinda, jarraian iraunkortasuneko europar strategiaren bilakaera-ildo nagusiak azalduko ditugu. Epe luzearako jomuga **iraunkorra izatea da**, ez bakarrik *iraunkoragoak izatea*.

Lehenengo eranskinean konpromiso bakoitzarekin loturiko adierazleen balio eguneratuak bildu dira, joera ezartzeko oinarritzat hartu diren azken datuak erakutsita.

Azkenik, **bigarren eranskinean** abian diren hiru ingurumen plan nagusien balorazio indibidualizatua aurkeztuko dugu (*Klima aldaketaren aurkako euskal plana, Lurzoru kutsatuen euskal plana eta Ingurumenaren aldetik iraunkorra den euskal kontsumo-plana*) baita parte hartzen duten sail bakoitzak 2008an eginiko jardueren balorazioa ere. Ebaluazio hau sintesi bat da eta ez du adierazitako plan bakoitzarentzat aurreikusitako jarraipenerako egin beharreko ebaluazioa ordeztzen.



**2008 EBALUAZIO
INTEGRATUA:
AURRERAPEN ETA
JOERA NAGUSIAK**

11 herlburu
44 konpromiso

1 Helburua

Aire garbia

JOERA



“Lurralde guztian airearen kalitatea hobetzea osasunean eta herritarren bizi-kalitatean duen eragina dela eta. Arreta berezia jarriko zaie herriguneei”

1. Kompromisoa: AIREAREN KALITATEA

Neurizkoa eta onargarria mailak % 95 baino gehiago izango diren aire kalitate indizea lortzea; aldiz, txarra, oso txarra eta arriskutsua mailak % 1 baino gutxiago izatea. Txarra, oso txarra eta arriskutsua maila jasaten duten herritar kopurua % 20 murriztea 2006arekin alderatuta

JOERA



2. Kompromisoa: PM₁₀ PARTIKULAK

Airearen kalitateari buruzko jarduera-planak egitea beharrezkoa den eremutan urteko batez besteko partikula kontzentrazioa gutxienez % 10 murriztea

JOERA



3. Kompromisoa: PM_{2,5}

Sareko estazioetan, Europar Batasunak zehaztuko duen PM_{2,5} en urteko muga-balioa ez gainditzea lortzea.

JOERA



4. Kompromisoa: KUTSATZAILEEN ISURKETAK

NO, SO₂ eta konposatu organiko hegazkorren isurpenak hurrengo portzentajeetan murrizten laguntzea 1990eko datuetan oinarrituta: NO_x: % -31, SO₂:% -64, konposatu organiko hegazkor ez metalikoak: % -58.

JOERA



5. Kompromisoa: ZARATA

Osasunaren Mundu Erakundeak aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata mailak jasaten dituzten herritar kopurua % 10 murriztea 2006 urtearekin alderatuta.

JOERA




Giza osasunaren eta ekosistemen garapena lortzeko baldintza argia eta beharrezkoenetakoa da airearen kalitatea. *Azken urteetan, Euskadiko ekoizpen-sarearen aldaketari eta atmosferako kutsadura arintzeko ekintzei esker, kutsaduraren maila historiko handiak murriztu dira hein handi batean.*

Airearen kalitatearen eta partikulen isurketen adierazleak positiboak dira eta norabide egokian doaz aurrera. Hortaz, 2010erako adierazitako konpromisoak lortuko direla espero da, nahiz eta partikulekin (PM₁₀) loturiko jarduerak **bizkortu** egin beharko diren. Bestalde, gas kutsakorren isurketek ez dute nahi den bilakaera lortu, anhidrido sulfurosoek izan ezik.

Izan ere, eskuragarri dagoen azken datuak (2006) NO_x isurketen **murrizketa** (% 3,7) erakusten du, baina hazkundera SO_x (% 5,9) eta konposatu organiko hegazkor ez metalikoetan (% 1,9). Epe luzeko bilakaera kontuan hartuta, argi ikusten da SO_x isurketek soilik jarraitzen dutela zehaztutako joera, beraz, 2006ko salbuespen puntuala alde batera utzita, finkatutako helburua lortzea espero da. Bestalde, gainerako kutsakorren datuek hartutako konpromisoetatik urruntzen gaituzte.

EAEko PM₁₀-en batez besteko kontzentrazioa 2007rako 30 (µgr/Nm³) izan zen; horrek esan nahi du aurreko urtearekiko murrizketa arina egon zela, eta II. Ingurumen Esparru Planaren helburuekiko hurbilketa. Horretarako, Ingurumen Sailak laguntza eskaini die ezarritako mugak gainditzen dituzten eremuetako udalei, zuzenketa planak egiteko. 2005. urtean hamazortzi udalek gainditzen zituzten muga horiek, eta, zuzenketa plan horiei esker, 2007an hamar izan ziren. Azkeneko planak Tolosaldean eta Santurtzin egin dira.

Gainera beste honako jarduera hauek ere egin dira: Airearen kalitaterako Ekitalde bat antolatu da Udalsarea 21-en esparruan, gehien kutsatzen duten enpresen isurketentzat neurri zorrotzagoak jarri dira ingurumen baimen integratuen bitartez eta atmosferaren kutsaduran eragin handiena duten jarduera ekonomikoentzat ikuskapen planari eutsiko zaio. Gaur egun, garatze fasean dago Nerbioi Beheko NO₂ isurketen mailari buruzko azterlan bat, zirkulazioaren eta isurketen arteko harremana zehazteko eta haiek murrizteko neurri zuzentzaileak proposatzeko.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

2 Helburua

Uraren kalitate ona

JOERA



“EAEko Plangintza Hidrologikoan zehaztutako ur-masek egoera ekologiko ona izatea eta ur horiek ez kaltetzea, pertsonen garapena eta bizikaltatea zein ekosistemen egoera ona bultzatzeko.”

6. Kompromisoa: AZALEKO URAK

Azaleko ur masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, % 80k egoera ekologiko ona izan dezan lortzeko.

JOERA



7. Kompromisoa: UR ARTIFIZIALAK

Ur masa artifizialak eta oso aldatutakoak babestea eta hobetzea, % 80k potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izan dezan.

JOERA



8. Kompromisoa: LURRAZPIKO URAK

Lurrazpiko urak babestea, hobetzea eta leheneratzea. Ur horien ateratzearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren % 80k egoera ona izatea lortzeko.

JOERA



9. Kompromisoa: HONDAKIN URAK

Saneamendu azpiegitura publikoek jaso beharreko herri eta hirietako hondakin-urak, biztanleen % 97ari dagozkionak, haien isuriarentzat eta hartzailearentzat egokiak diren HUA motako araztegietan tratatzea lortzea.

JOERA



10. Kompromisoa: BAINATZEKO URAK

Bainatzeko uretako lagin-hartze puntuen % 95ek ona edo onargarria kalifikazioa izan dezan lortzea.

JOERA



11. Kompromisoa: KONTSUMO URAK

Euskadiko biztanleen % 95ek kalifikazio onargarria duen hornikuntzako kontsumo ura jaso dezan lortzea.

JOERA



Ur arloko emaitzarik onenak kontsumoko eta bainatzeko uretan lortzen dira. Arlo horietan ia lortu dira II. Ingurumen Esparru Planaren helburuak. Hortaz, pentsa liteke adierazle horiek birformulatu egin daitezkeela haien hobekuntzan aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

2007an, bainurako uren kalitatea ona edo onargarria zen lagin gisa hartutako puntuen % 95ean. Hortaz, II. IEPeko helburuak lortu dira. Gauza bera esan daiteke kontsumo-uren kalitateari buruz. 2007an IEPean ezarritako xedea lortu da; izan ere, herritarren % 95ek baldintza oneko urez hornituta dago. Dena den, adierazle horrek hobetzeko marjina zabala du, herritarren % 2k oso kalitate txarreko ura jasotzen baitu.

Hondakin-uren tratamenduaren inguruan, aipatu behar da 2005eko zifrekin alderatuta, 2007an herritarren hondakin-uren % 85 araztegietan tratatzen zirela. 2010eko konpromisoa lortzeko, beharrezkoa da proiektatutako saneamendu-sarea eraikitzea eta abian jartzea.

Azaleko urei (ibaiak, estuarioak eta kostaldea) dagokienez, aldeak daude beren egoera ekologikoaren artean, eta oraindik asko dago egiteko 2010eko helburuak lortzeko. Kostaldeko uren kalitate ekologikoa ezin hobea da, 2007an kaltetze puntuala egon zen arren, 2006ko datuekin konparatuta. Estuarioetako eta hezeguneetako urak gutxika hobetzen ari dira 2002tik. Beraz, baikorrak izan gaitzke, eta urrun dauden 2010eko konpromisoak lortuko ditugula uste dezakegu. Ibaietako ur-masen kasuan, ordea, ez da aurrerapen nabarmenik egon. Izan ere, adierazle fisiko eta kimikoen aurrerapen jarraitua, eta 2010eko helburutik hurbil dagoena, erakusten duten arren denbora epe zabalagoa duten adierazle biotikoen atzera egin dute 2003tik, eta beraz, urruntzen ari dira adierazitako jomugetatik. Hala ere, etorkizuneko perspektibak positiboak dira, EAEko Saneamenduko Plan Zuzentzailean zehaztutako saneamendu-sarea bukatzeko dagoelako eta ibaien hobekuntzan efektu zuzena izango duten ibaiertzak berreskuratzeko eta babesteko jarduerak eta bestelako programa batzuk gauzatzeko daudelako.

Alor horretan, oso garrantzitsua izan zen Uraren Euskal Agentzia (URA) sortzea. 2015eko abenduaren 31 baino lehen azaleko eta lurpeko ur-masak egoera ekologiko onean egotea du helburu nagusizat, Europar Batasuneko Uraren Zuzentzarau Markoak estatu-kideei ezarritako xedapenak, 2006ko ekaineko Euskadiko Uraren Legean islatutakoak, betetzeko.

URAREN funtzioak ondokoak dira: uren emakiden eta baimenen inguruko EAEko uren kudeatzea eta zentralki administratzea, saneamendu-sarea amaitzea, uholdeen arriskuak murrizteko jarduerak gauzatzeko eta ibaien arroak leheneratzea. Gainera, ur-kontsumo arduratsua bultzatu behar du, eta Hirugarren Munduko herrialdeekin lankidetzan aritu behar da, uren hornikuntzaren eta kudeaketaren gaitetan. Erakunde hau abian jartzeak, beraz, uren kalitatearen, baliabide naturalen kontsumo arduratsuen eta klima-aldaketari egokitzearen inguruko II. IEParen helburuak lortzea erraztuko du.

2007an, uren kalitatea berrikusteko sistema ezartzeaz gain, trihalometanoen mailak ere neurtu ziren, baita etxebizitzetako eta ikastetxeetako kontsumo-uren hodiekin eragindako berun-kutsadura ere. Era berean, informazioa herritarren esku jarri zen, Osasun Sailak sorturiko EKUIS kontsumo uren informazio sistema jendaurrean azalduta. Sistema horretan uren jatorriari, hornitzaileen egiturari, uren tratamenduari eta analisiaren emaitzari buruzko informazio garrantzitsua biltzen da.

3 Helburua

Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea

JOERA



“Lurzorua egoki kudeatzea, kutsadura historikoaren lehentasunezko berreskurapenaren bidez eta beste kutsadura mota batzuk prebenitzea.”

12. Kompromisoa: LURZORUAREN KUTSADURA PREBENITZEA

Lurzoruaren kutsadura prebenitzea, dauden tresna espezifikoak baliatuta (aurretiazko egoera txostenak).

JOERA



13. Kompromisoa: LURRA ERABILERA BERRIETARAKO ERREKUPERATZEA

Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen 407 hektarea berreskuratzea. Hiri antolamenduak lurzoru horiei erabilera berri bat ematea edo bertan jarduera berri bat gauzatzea aurreikusten du.

JOERA



14. Kompromisoa: LURRA ERABILERA BERRIETARAKO IZAN GABE ERREKUPERATZEA

Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen 35 hektarea berreskuratzea. Hiri antolamenduak ez du lurzoru horiei erabilera berririk ematea edo bertan jarduera berririk gauzatzea aurreikusten.

JOERA



15. Kompromisoa: ZABORTEGI EZ AKTIBOAK

Jabetza publikoko zabortegei ez aktiboen etengabeko ingurumen kontrola eta jarraipena.

JOERA



3 Helburua. Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea

EAEko lurzoria ondasun eskasa da, hortaz, garrantzitsua da kutsatutako lurzoruak beste erabilera batzuetarako moldatzeko politikak sortzea. Hala, ez da beste eremu bat okupatu behar, eta lurzoruaren stockari eusten zaio.

Kontuan izan behar da azken 10 urteetan lurzoruaren eskaria handitu egin dela, etxebizitzak, ekoizpen-unitateak zein azpiegiturak eraikitzeke, eta ondorioz, baliabideak presio handia jasan duela.

EAEko lurzoria kutsa dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioaren arabera 7.898 Ha dira, hau da, azalera erabilgarriaren % 16,5, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak izan dituztenak. Eta horietatik 1.279 eta 3.120 Ha bitarte hondatuta edo kutsatuta dagoela estimatu da, hau da, EAEko azalera erabilgarriaren % 2,7 eta % 6,5 bitarte. Gaur egun, guztira 541 lursail inguru daude potentzialki kutsatuta eta libre, gehienak epe labur edo ertainean urbanistikoki garatuko diren eremuetan.

Nolanahi ere, 1/2005 Legea, lurzoria ez kutsatzekoa eta kutsatutakoa garbitzekoa, onartu zenetik, ikertutako eta leheneratutako lursailak nabarmen hazi dira.


2000-2008 aldian, leheneratutako lurzoruaren azalera goranzko joera izan zuen 258 Ha-ra iritsi arte.

Lurzoria berreskuratzeko politika honen garapena indartzeko, 2007an Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Kutsatuen Plana onartu zen, lurzoruak berreskuratzeko batetik, eta ingurumenari egiten zaion kaltea ahal den heinean prebenitzeko, bestetik. Hona hemen aipatutako planaren lau helburu estrategiko nagusiak: lurraren kalitatearen aldaketa prebenitzea, lurzoru kutsatuen berreskurapena sustatzea, erabili gabeko eta kalitatez aldatutako lurzoruak berrerabiltzea erabilera berriak sortuz eta eremu horiek baloratzea kutsatzen ez duten eta balio erantsia sortzen duten erabilera berriak esleituz.

2008an 3,8 milioi euro inbertitu dira plan horren garapenean, eta beste batzuen artean, honako jardun hauek gauzatu dira. Donostiako gas fabrika berreskuratzea, Zornotzako Condor industrialdea ikertzea, edo lurrak mugitzeko obrak eta zimendatzea Bilboko herritarren segurtasunerako eta babes zibilerako egoitza berria eraikitzeke.

Horrez gain, Lurzoru kutsatuen kudeaketarako zentroaren sozietate arduraduna sortzeko izapideak hasi dira. Horrek aurrerapen handia ekarriko du planaren ezarpenean.

Azkenik, aurten 9/2005 Errege Dekretua betez jasotako aurretiazko 4.000 egoera-txostenetatik zati bat baloratu da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

4 Helburua

Baliabide naturalen kontsumo arduratsua



“Baliabide naturalen (lurzorua, ura eta materialak) kontsumo arduratsua sustatzea eta eraginkortasun mailak optimizatzea. Azken hori lortzearen, ikerketa eta berrikuntza bultzatu behar dira, lehiakortasuna hobetu dadin”

16. Kompromisoa: KONTABILIZATU GABEKO URA

Hiriko kontabilizatu gabeko uraren eskaera murriztea, hornituriko biztanleriaren % 80arentzat % 25eko mailak lortu arte.

JOERA



17. Kompromisoa: UR ALTEN ESKAERA

Uraren hornikuntza publikoaren eta industria eta nekazaritza jardueretarako berezko hartuneen alta kopurua % 20 murriztea, 2001 urtearekiko.

JOERA



18. Kompromisoa: MATERIALEN KONTSUMOA

Baliabideen kontsumoaren eraginkortasunari (eraginkortasun materiala) 2001. urteko mailatan eustea.


JOERA




4 Helburua. Baliabide naturalen kontsumo arduratsua

Azken urte hauetan naturako baliabideen erabilerearen eta barne produktu gordinaren bilakaeraren arteko lotura eteten ari bada ere, baliabide horien kontsumo orokorrak goranzko joera du, urarenak izan ezik. Lotura eteteak baliabide horien erabilera eraginkorragoa izatea dakar. Agerikoa da eraginkorragoak diren teknologia berriak aplikatzea eta garatzea ekarriko duten politikak sustatu behar direla. Barne produktu gordinaren eta naturako baliabideen kontsumoaren lotura erabat etetea da helburua.

2005ean material beharra guztira 111 tonara iritsi zen biztanleko; 2004an baino zertxobait gehiago, % 1,5 hain zuzen. Dena den, etxean kontsumitzen diren materialak materialen behar osoaren % 16,4 besterik ez dira. Pertsona bakoitzeko kontsumo horrek % 2,5eko igoera izan du 2004koarekin alderatuta. Asko kontsumitzean oinarritutako bizimodu eredu delata eta, euskal gizartean dugun material beharra guztira gero eta handiagoa da



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eustat eta Energiaren Euskal Erakundea



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila


Baliabideen kontsumoaren eraginkortasunari dagokionez, bi egoera kontrajarri daude. Eraginkortasun orokorrak % 2,1 egin du gora 2001etik 2005era. Etxeko eraginkortasuna, berriz, % 4,8 jaitsi da eta urrun gaude 2010erako hartutako konpromisoetatik.

Azken sei urteotan nabarmen hobetu da uraren kudeaketa eta, horri esker, ur hornidurarako sarean galera gutxiago izan da eta goiko sareko etengabeko eskaera gutxitu egin da. Badirudi joera horrek bere horretan eutsiko diola Uraren Euskal Agentzia martxan jarrita eta **uraren kanona arautzen duen Dekretua onartuta**. Jarduera honen helburua herritarrek ur gutxiago kontsumitzea eta lortzen diren diru-sarrerak ubideak berreskuratzeko erabiltzea da. Kontsumitutako uraren tasa 2009ko urtarrilaren 1ean hasiko dela funtzionatzen aurreikusten da. Lehenengo urtean etxebizitza-unitate guztiei salbuespena aplikatuko zaien arren, epe luzera kontsumoa 130 litro/pertsona/egunetik beherakoa den guztietara luzatuta. Jarduera honi esker, EAEn ura modu arduratsuan kontsumitzeko oinarriak jartzen ari gara, horrela, datozen urteotan II. Ingurumen Esparru Programako konpromisoak

betetzeko. Ildo horretatik azpimarratu beharra dago EAE eta Nafarroa direla Estatuan osoan etxeetan ur gutxien kontsumitzen duten autonomia erkidegoak.

Tasa horrek ibilguen ingurumen leheneratzean eragingo duten jarduerak egiteko aukera emango dio Uraren Euskal Agentziari. Jarduera horiek orain arte Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egiten zituen. 2009an jarduera horiek egiteko Uraren Euskal Agentziaren aurrekontua 12 milioi euro ingurukoa izango da eta ahal den ibilguetan estaldura kentzeko, ibaien paisaia leheneratzeko eta bazterretan landaredia berriz jartzeko erabiliko dira.

2008an GAP ingurumen programaren –Global Action Plan– hirugarren edizioa egin zen, eta 3.600 etxebizitza-unitatek eta 36 udalerrik hartu zuten parte bertan. Jarduera horren helburua herritarrek sentsibilizatzea da, ingurumenaren arloko jardunbide egokiak aplikatu daitezkeen sustatzeko, eta horrela ingurumena hobetzea eta zaintzea lortzeko.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila



5 Helburua



Energia kontsumo eta produkzio iraunkorra sustatzea

JOERA



“Energia aurrezte, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea kontsumoko sektore guztietan”.

19. Kompromisoa: ENERGIA AURREZTEA

2010. urterako 975.000 tep-eko energia aurrezki lortzea.

JOERA



20. Kompromisoa: ENERGIA - ERAGINKORTASUNA

2000. urtearekiko, intentsitate energetikoa % 16 hobetzea.

JOERA



21. Kompromisoa: JATORRI BERRIZTAGARRIKO ELEKTRIZITATEA ETA KOGENERAZIOA

Kontsumoaren % 29 energia berriztagarriaren eta kogenerazioaren bitartez egin dadin lortzea.

JOERA



22. Kompromisoa: BIOERREGAIK



Garraioan, urteko, 177.000 tep-eko bioerregai kontsumoa lortzea.

JOERA



2007an, energiaren amaierako kontsumoa 5.747 Ktep-ekoa izan da; beraz, 2006an baino % 2,7 handiagoa. Garraioaren sektoreak, atzetik industriarena duela, jarraitzen du bilakaera horri gehien eragiten dion jardura izaten. Aldiz, azken urte honetan nekazaritzaren eta


arrantzaren sektorean erregistratutako % 44,6ko beherakada nabarmendu da. 2006an 175 Ktep-ko kontsumoa izan zuen sektore horrek eta 2007an, berriz 97 Ktep-koa.



2007an energiaren barne kontsumo gordina 7.773 Ktep-ekoa izan da, ia 2006koaren berdina (% 0,7 handiagoa). Azken urte honetan gorakada handiena izan duten energia iturriak elektrizitatea eta energia berriztagarriak izan dira; % 27,8 eta % 19 igo dira, hurrenez hurren. Energia deribatuek eta gas naturalak, berriz, % 24,1 eta % 4,5 egin dute behera.


Azken urteotan aldaketa esanguratsuak igarri dira EAEko barne kontsumoaren egiturari. Horrela, petrolioaren deribatuak garrantzia galtzen ari dira eta gas naturala da 7 urteotan toki handiena hartu duen iturria, atzetik energia berriztagarriak dituela.

Iturrien arabeko energiaren barne kontsumo gordina



Iturria: EEE

Barneko energia kontsumo gordina sektoreka



Iturria: EEE

EAEko energiaren intentsitateak beheranzko joerari eutsi dio. 2006tik % 1,4 jaitsi da. Euskal ekonomia gero eta eraginkorragoa da energia erabiltzeari dagokionez. Hein handi batean, barne produktu gordinarekin alderatuta energiaren amaierako kontsumoa gutxiago hazi delako gertatu da hori. 2007an, barne produktu gordinaren euro bakoitzeko, energia 2000. urtean baino % 10 gutxiago erabili da. Beraz, 2010erako konpromisoetatik gertuago gaude.


2007an 92.401 Tep energia aurreztu ziren, 2006an baino % 27 gehiago, alegia. Hortaz, 2001etik 2007ra 572.500 tep aurreztu dira energian. % 27ko hazkunde tasa horri eusten bazaio 2010erako 975.000 tep energia aurrezteko ezarritako konpromisoa lortu eta gainditzeko aukera badago.

Horrekin lotuta, garrantzitsua da Euskal Energia Erakundeak 2008rako garaturiko eraginkortasuna

hobetzeko diru-laguntza programa. Horren bitartez 50.000 tep-eko energia aurrezkiak izango dela aurreikusi da, eta 150.000 tona CO₂ isurtzea galaraziko da. Abian jarri zenetik, guztira 1.300 proiektu lagundu dira diruz. Inbertsioa 91.000 eurokoa izan da, eta horietatik % 15 diruz lagundutakoak izan dira. Guztira 135.000 tep inguruko energia aurrezkiak egin da.

Udalerrri mailan Bilbon, Donostian eta Beizaman energia eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriak erabil daitezten sustatzeko programak egin dira. Jardun horiek kontsumoa 2 milioi Kwh murriztuko dute urtean, eta 1.500 tona CO₂ isurtzea galaraziko dute.

CIC-Energigune sortzeak ere garrantzi handia izango du epe ertain-luzean. Ikerketa zentro horren lana energia berriztagarrien eta energia biltegitratzearen eremuan oinarrituko da.



Iturria: EEE eta EUSTAT

6 Helburua

Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko isurketarik eza

JOERA



“Hondakinen ekoizpena murriztea eta haien kudeaketa hobetzea hondakin ez tratatuen isurketa maila hutsera iritsi arte.”

23. Kompromisoa: HONDAKIN INDUSTRIALEN ETA BALIO ERANTSI GORDINAREN ARTEKO LOTURA HAUSTEA

Hondakin industrialeen sorkuntzaren eta balio erantsi gordinaren arteko lotura haustea.

JOERA



24. Kompromisoa: HONDAKIN ARRISKUTSUEI BALIOA

Hondakin arriskutsuetan dauden baliabide materialak berreskuratzea, haien birziklatze tasa % 65era arte areagotuta.

JOERA



25. Kompromisoa: ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENENKO HONDAKINAK BIRZIKLATZEA

EAEen sortzen diren eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen % 70 berrerabiltzea eta birziklatzea lortzea.

JOERA



26. Kompromisoa: HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK BIRZIKLATZEA

Jatorri industrialeko hondakin ez arriskutsuen % 75eko birziklatze tasa lortzea.

JOERA



27. Kompromisoa: HIRI HONDAKINAK BIRZIKLATZEA

% 35era arteko birziklatze tasa lortzea sorturiko hiri hondakinen guztizkotik.

JOERA



28. Kompromisoa: HIRI HONDAKINIK EZ ISURTZEA

Tratatu gabeko hiri hondakinik ez isurtzea.

JOERA




6 Helburua. Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko isurketarik eza


Hiri hondakinen eta hondakin arriskutsuen sorrerak goranzko joera izan du 2000 eta 2007 urteen arteko epean; eta hori negatibotzat hartzen da iraunkortasunaz hitz egitean. Hondakinen balorizazioak gora egin duen arren, sorturiko kantitateak ere gora egin du urtetik urtera.

2007an 1.224.514 tona hiri hondakin sortu ziren EAEn, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago, alegia. 2007an 465.904 tona hondakin arriskutsu sortu zirela estimatu da, eta beraz 2005arekiko % 25 egin dutela gora.

Hondakinak baloratzearen arloan 2010erako konpromisoak lortzeari dagokionez, desberdintasun garrantzitsuak daude tipologiaren arabera. Hortaz, hiri hondakinen kudeaketa 2007an II. Ingurumen Esparru Programako helburuak lortzear bazegoen, eraikuntzatik eta eraispenetik etorritakoen prozesuak oraindik konpromisoaren erdialdean kokatzen diren balorazio % du. Beharrezkoa da, hortaz, arlo horretako kudeaketan sakontzea eta hura hobetzea.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2008-2011 aldirako Plana onartu berri da. Plan horrek ekarpen garbia egingo du hurrengo urteetan 24. konpromisoa hobetzeko. Dokumentu honetan, orotara 40 ekintza ezartzen dira hiru helburu estrategikoak betetzeko: hondakinak eta berekin lotutako arriskua sortzea galaraztea, hondakin arriskutsuen balorizazio maila % 65 izatea kudeaketa hierarkia betetzen dela ziurtatuta, eta hondakin horiek ekoizten dituztenei kudeaketa zerbitzu eraginkorra eskaintzea.

Gaur egun gauzatze fasean dago EAEko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko 2008-2011 aldirako plana, helburu horren hobekuntzan eragina izango duena.

2007an eta 2008an hainbat hondakinak kudeatzeko azpiegitura jarri dira abian, esaterako ECOFUNDen galdaketako hareak leheneratzeko planta, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak tratatzekoak Gasteizen eta Urnietan, eta tratamendu mekaniko-biologikokoa Gasteizen, konpostajekoa Azpeitian eta hondakin handiena Ortuellan.

Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeak berekin dakartzan arazoak aintzat hartuta, tokiko administrazioan lantalde espezifiko bat sortu da arlo horretarako, hainbat eragileren parte-hartzearekin.





7 Helburua

Gure aniztasun biologikoari eustea

“Aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea, lurreko eta itsasoko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuta eta berreskuratuta.”

JOERA



29. Kompromisoa: DESAGERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN ESPEZIEAK

Desagertzeko arriskuan edota egoera kritikoan dauden fauna eta flora espezieen populazioek 2007. eta 2010. urteen artean joera positiboa izatea lortzea.

JOERA



30. Kompromisoa: BASO AUTOKTONOAREN AZALERA

Baso autoktonoaren azalera 10.000 hektarea handitzea 2006. urtekoarekiko (baso inbentarioa).

JOERA



31. Kompromisoa: HEZEGUNEA

EAEko hezeguneeen sektoreko lurralde planean bilduriko hezeguneetatik 50 hektarea leheneratzea.

JOERA



32. Kompromisoa: NEKAZARITZAKO ETA INGURUMENEN

Bioaniztasunaren babesarekin lotutako nekazaritza-ingurumen neurriak gutxienez nekazaritza azalera erabilgarriaren %10ean ezartzea lortzea.

JOERA



33. Kompromisoa: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Nekazaritza ekologikoari eskainitako azalera handitzea 1.200 hektareataraino iritsi arte.

JOERA



34. Kompromisoa: BASO ZIURTAGIRIAK

Ziurtagiria duten baso ustiapenen 50.000 hektareataraino iristea.

JOERA



35. Kompromisoa: ESPEZIE INBADITZAILEAK

Espezie inbaditzaileen presentzia murriztea.

JOERA



36. Kompromisoa: NATURA SAREA

Natura 2000 Sareko espazioen artean, eskualde biogeografiko Atlantikoan dauden guztiak eta eskualde Mediterraneoan dauden % 30 kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea lortzea.

JOERA



37. Kompromisoa: PAISAIA

Euskadiko paisaia berezien eta nabarmenen katalogoko guneen % 10ek kudeaketako neurri egokiak izatea.

JOERA




2007an guztira, hamaika animalia espezieren populazioak aztertu dira, eta horietatik zazpi txoriak ziren (atararra, uhalde-enara, lezkari arrunta, lezkari karratxina, benarriz gorritzta, kaio iluna eta kaio hankahoria) eta lau arrain kontinentalak (ibai-kabuxa, mazkar arantzaduna, zaparda eta barbo arrunta). Kasu gehienetan bilakaerak jarraipenerako joera dauka. Nolanahi ere, orain arte desagertzeko arriskuan zegoen benarriz gorritzta desagertzea negatibotzat hartu da. Bestalde, mediterranean isurialdean bizi diren mazkar arantzadunaren eta zapardaren egoera txarra ere negatibotzat jo da.

Hegazti taldeen urteko aldaketako indizeak bere horretan eutsi dio aurreko urtekoarekiko, eta agerian uzten jarraitzen du habitat urbanizatu eta kultibatuetako hegazti populazioen bilakaera basoetakoena baino okerragoa dela.

1998-2008 aldian erregresioa izan duten hegazti-fauna espezieak honako hauek dira: hegatzabala, ihi-txoria, bele txikia, galeperra, pirripioa, buztanikara zuria eta landa-txolarrea. Miru beltzak eta buztangorri ilunak, ordea, bilakaera positiboagoa izan dute.

2007an landa-azterketak eta ebaluazioak egin diren fauna ornoduneko populazioen joerak EAEn		
Sailkapena	Espeziea	Joera
Zaurgarria	Barbo arrunta	↔
	Uhalde-enara	↔
Arraroa	Lezkari arrunta	↑
	Lezkari karratxina	↔
Interes berezikoa	Atalarra	↔
	Kaio iluna	↔
Galzorian	Ibai-kabuxa	↔
	Mazkar arantzaduna	↓
	Zaparda	↓
	Benarriz gorritzta	DESAGERTUA
Ez dago katalogatua	Kaio hankahoria	↑

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Foru Aldundiak eta IKT.



Hegazti taldeen urteko aldaketa indizea, 1998-2008

Taldea	%	Joera
Landa-sistemak	%-3,1	↓
Hiri-sistemak	%-1,1	↔
Baso-sistemak	%-1,4	↑

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Foru Aldundiak eta IKT.

2008an Foru Aldundiek ez dute mehatxatutako espezieentzat inolako kudeaketa planik onartu, eta beraz, 16 dira guztira onarturiko planak. Nolanahi ere, desagertzeko arriskupean katalogaturik dauden eta tresna hori ez duten espezieak daude. Mediterraniar ferra-saguzarraren eta Bechtein saguzarraren kasua da horixe, baita lezkari arruntaren eta Antenmaria dioca, Matricaria maritima eta Pentaglottis sempervirens landare baskular espezieen kasua ere.

Desagertzeko arriskuan dauden espezieen egoera egonkorra da, bisoi europarraren, mazkar arantzadunaren eta zapardaren kasuan izan ezik; haien egoera oso kezagarria da.

Ugari dira garatu diren neurriak eta adierazle horiengan eragin zuzena izango dutenak. Bereziki esanguratsua da, bestalde, Ingurumen Sailak Euskadiko Bioaniztasun Zentroa abian jarri izana Madariaga Dorretxean. Zentro horrek argi eta garbi bereizitako bi funtzio bildu nahi ditu, alde batetik, erreferente izan nahi du ikerketa zientifikoaren arloan, eta bestetik, bioaniztasunaren inguruko sentsibilizazioa eta hedapena sustatu nahi du herritarren artean. Horri esker bioaniztasunari buruzko informazio eguneratua eta kalitate handikoa eduki ahal izango da ingurumen politikan erabakiak hartu ahal izateko.

Horretaz gain, gauzatze fasean dago 2008-2014 aldirako **EAEko Bioaniztasun estrategia**. Estrategia horren helburua bioaniztasunaren galera etetea izango da, eta arlo horretan II. Ingurumen Planean hartutako konpromisoak lor daitezen erraztea.

Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategiak 2010. urtea ezartzen du Natura Sarea 2000-n aitorturiko guneek kudeaketarako tresna zehatzak izan ditzaten. Ildo horretatik, EAEn hobetzeko sare nabarmen bat antzeman da, gaur egun hegaztiak babesteko zona berezik edo inongo garrantzi komunitarioko lekuk ez baitu onarturiko kudeaketa planik, nahiz eta jorratzen ari diren. Egoera hori EAEko Paisaia berezien eta apartekoen katalogoan bildutako lekuetara heda daiteke. Parke naturalen kasuan deklaraturiko bederatzietatik bostek bakarrik dute onarturiko erabilera eta kudeaketa plana.

Nekazaritza ingurumeneko neurrien eta basoko ziurtagirien menpeko nekazaritzako lur erabilgarrien adierazleek, lortu dituzte dagoeneko II. Ingurumen Planaren 2010 eperako ezarritako helburuak, eta hortaz, baliteke komenigarria izatea helburu horiek berriz planteatzea aurrera egiten jarraitzeko.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila ere bere politikak garatzen ari da helburu horiek lortzeko. Hortaz, EAEko 2007-2013 aldirako Nekazal garapeneko programa nekazaritza ekologikoa sustatuko duen tresna bilakatuko da, nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak ustategien Nekazaritza eta ingurumen kontratuari lotzen baitizkio. Horretaz gain, basoei bideraturiko laguntzak Basoko Kudeaketa Planak egiteari lotzen zaizkio, ustategi horien kudeaketa iraunkorra bultzatuta eta EAEko baso azalera autoktonoaren hazkunde bultzatuta. Ez dugu ahaztu behar gaur egun EAEko lurzorua % 55 zuhaitzak dituzten baso-lurrak direla. 2009aren hasierarako auditoretza bat aurreikusi da. Ziurtaturiko baso-azalera hazi egingo dela aurreikusi da.

Bestalde, eta nekazaritza ekologikoa bultzatzeko motore gisa, Nekazaritza eta Elikagai Ekologikoen Euskal Kontseilua sortu da. Erakunde hori izango da nekazal eta elikagai produkzio ekologikoa kontrolatzeko arduraduna, ekoizpen ekologikoko sistemak sustatu eta hedatzekoa eta produktu horien kontsumoa sustatzekoa herritarren artean. Horrez gain, beste funtzio batzuk ere izango ditu.

Sail horrek berak hiru Foru Aldundiekin batera, «Etorkizuneko nekazaritzaren aldeko apustua egin ezazu» kanpaina atera du. Jarduera horren helburua EAEko nekazal ustiatzeari praktika iraunkorrak garatzea eta haien inguruan sentsibilizatzea da. 25.000 liburuxka argitaratu dira, informazioa eskaintzen duen

mikrogune bat sortu da eta marketin zuzeneko ekintzak egin dira nekazal ustiatzeari titularrentzat. Bestalde, nekazaritza iraunkorraren inguruan esperientziak trukatzeko bultzatzeko eta proiektuak garatzeko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak lankidetzara hitzarmena sinatu du Vermont-ekin (AEB iparraldeko estatua).

Azkenik, adierazi beharra dago Ingurumen Sailak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailarekin batera, EAEko 2008ko basogintza eta ingurumen adierazleak azterlana egin duela. Azterlan horretan 23 adierazle definitu eta kalkulatu dira, EAEko basodiaren ingurumen egoerari buruzko informazioa ematen dutenak.



8 Helburua

Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz egitea

JOERA



“Pertsonen mugikortasun-eskaerari oinez ibiltzea, bizikleta eta garraio kolektiboa sustatuta erantzutea. Merkantzien garraioan itsasoz eta trenbidez egindakoa sustatzea, errepide bidezkoa murrizteko”

38. Kompromisoa: PERTSONEN MUGIKORTASUNA

Bidaiarien banaketa modala motorerik gabeko garraiorantz bideratzea

JOERA



39. Kompromisoa: SALGAIEN GARRAIOA

Salgaien garraioaren banaketa modala berbideratzea trenbideak, tona-kilometrotan, azalerako garraio guztiaren % 15 garraiatu dezan lortu arte (errepide - trenbide +).

JOERA





Salgaien eta pertsonen mugikortasun motorizatua klima aldaketan eragin handienetakoa duen bektoreetako bat da, eta gainera bestelako ingurumen inpaktu larriak eragiten ditu, esaterako hondakin arriskutsuak sortzea, baliabide ez berriztagarrien kontsumo intentsiboa, habitaten zatitzea azpiegiturak eraikitzeagatik eta zirkulazio istripuak, beste batzuen artean.


Horregatik, pertsonen zein salgaien mugikortasunaren kudeaketa arlo honetako erantzukizunak dituzten erakundeek (Udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta hainbat eragile) aintzat hartu beharreko elementu nagusi bilakatzen da.

2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasun azterlanaren datuen eta EAeko garraio eskaeraren azken irudiaren arabera, bitarteko motorizatuen barneratze kuotak gora egin du azken urteetan, bai pertsonen garraioari dagokionez, bai salgaien garraioari dagokionez, bitarteko iraunkorragoekin alderatuta. Hortaz, **II. Ingurumen Planean ezarritako konpromisoak betetzetik gero eta urrunago gaude.**

Bitarteko iraunkorren barruan sartzen dira oinez, bizikletaz eta garraibide publikoz egindako joan-etorriak



Trenbidez garraiaturiko merkantzien %



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila

Tokian-tokian aurreikusitako mugikortasunaren arloko ekintzak gorabehera, 2008an eragin handiena izan duten jarduerak marraketen eta obren lizitazioen onarpenak izan dira Abiadura Handiko Trenaren sare ia osoan, EAETik egiten duen ibilbidean. Tren berriak behin betiko ekarpena egiten dio Euskal Hiriaren kontzeptuari, batetik, bertako hiriburuen arteko lotura ezarri; bestetik, pertsonen eta salgaien garraioaren banaketa funtzionalaren bitartez, gaur egungo sarearekin uztartuta, eta azkenik, trafiko horien zati handi bat tren bitartez egin dadin ahalbidetuz, gure errepideetako saturazioa murriztuta.

Ildo horretatik, adierazi beharra dago abian jarri zela itsasoko lehen autobidea Bilbo eta Zeebrugge artean, 2007ko irailaren 27an. Europako Batzordeak babesturiko ekimen horren helburua Arku Atlantikoan errepidez egiten den salgaien trafikoaren zati bat itsasoz egitea da. Ekimen horren balioa, ordea, sinbolikoa da batez ere Gaur egungo okupazio mailarekin, dagoeneko urtebete igarota, itsaso

bidezko lineak 350 kamioi kendu ditu astean errepideetatik, eta horrekin alderatuta, lurreko mugetatik oraindik 10.000 ibilgailu astun igarotzen dira egunean., baina etorkizunean garrantzi handiagoa izango duela aurreikusi da.

Mugikortasun iraunkorreko ohiturak bultzatzeko helburuarekin Eusko Jaurlaritzak web orri bat sortu du garraio zerbitzu ezberdinei buruz sarean dagoen informazioa eskuratu ahal izateko. Atariaren bitartez erabiltzaileak garraibide publikoz egingo dituen joan-etorriak antola ditzake, eta gainera beste baliabide batzuei buruzko informazioa ere eskaintzen du, disuasio aparkalekuak edo autoa partekatzeko zerbitzuak, mugikortasun iraunkorra sustatzeko.



9 Helburua

Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea

JOERA



“Lurraldean jarduten duten sektore ezberdinen plangintza bateratua eta koherentea egitea. Horrela, lurraldearen artifizializazioaren eta zatiketaren arazoak konponduko dira”

40. Kompromisoa: HIRIGINTZA JARDUERAGATIKO ARTIFIZIALIZAZIOA

Urtero hirigintza jardueragatik artifizialtzen den hektarea kopurua murrizten joatea.

JOERA



41. Kompromisoa: AZPIEGITURAK ERAIKITZEAGATIKO ARTIFIZIALIZAZIOA

Urtero azpiegitura berriak eraikitzeagatik artifizializatzen den hektarea kopurua murrizten joatea

JOERA



2007. urtean 481 Ha hazi da urbanistikoki kalifikaturiko azalera; horrela, 2006an 56.840 Ha. izatetik 2007an 57.321 izatera igaro da. Ondorioz, artifizializatutako azalera, lurraldearen azalaren % 7,9 da. Nolanahi ere, artifizializazioari dagokionez eraginik ez duten espazio libreak zenbatzen ez baditugu 470 Ha inguru izango lirateke.

Hazkunde hori urbanistikoki kalifikaturiko lurzorua jarduera ekonomikoetara zabaltzean oinarritu da, 281 ha-ra zabalduta (% 59), eta hein txikiago batean, etxebizitza erabileratarako lurzorura zabaltzean, 183 ha-ko hazkundearekin (% 22).

Gaur egun berrikuste fasean daude Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak eta Udalplanaren eguneratzea eta hedatzea, EAEko udalerrri guztien hiri antolamenduari buruzko informazioa zentralizatzen duen informazio geografikoko sistema. Gainera, orain arte 15 Lurralde Plan Sektorial (LPS) egin dira eta horietatik 9 onartu dira dagoeneko, eta haiek biltzen dituzten arloak ugari dira, ibai-ertzak, errepideak, energia eolikoa, trenbide sarea, lurzorua eta jarduera ekonomikoak, hezeguneak eta itsasertzak.

Lurzorua erabilera	2006	2007
Etxebizitzak	19.675	19.858
Jarduera ekonomikoak	13.368	13.649
Ekipamenduak	5.410	5.411
Espazio libreak	8.650	8.638
Oinarrizko azpiegiturak	1.015	1.057
Bideak	6.996	6.979
Portuak	327	331
Aireportuak	809	809
Trenbideak	590	588
GUZTIRA	56.841	57.322

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

Neurriak: Hektareak (Ha)

10 Helburua

Berotegi efektuko gasen isurpenak mugatzea

JOERA



“Berotegi efektuko gasen isurketak murriztea, karbono gutxiko ekonomiarantz bideratut”.

42. Kompromisoa: BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURPENAK

Kyotoko Protokoloan araututako berotegi efektuko gasen isurpen osoak 2010erako mugatzea 1990eko % 14ko isurpen maila gaindi ez dezaten.

JOERA



Klima aldaketa da XXI. Nazio Batuen Erakundeak 1997an egindako Kyotoko bileratik hona adierazi duen bezala. Klima aldaketari buruzko gobernu arteko taldeak egindako txostenen arabera, Lurreko klima aldatu egin da atmosferan berotegi efektuko gasak pilatzearen eraginez. Ondorioz, Planetaren batez besteko tenperatua 0,74 °C igo da azken mendean eta ez badira beharrezko neurriak hartzen, XXI. mendearen amaierarako 1,8 °C eta 6 °C bitarte igo daiteke.


Arazoak duen garrantziaren berri izanik, Eusko Jaurlaritzak klima aldaketaren kontrako borroka lehentasunezko alor gisa definitzea erabaki du hurrengo urteetarako, eta, hala, arazo larri honen aurrean nazioarteko ekintzekin bat egin du. Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana Euskal Autonomia Erkidegoko erreminta nagusia da, planeta berotzea galarazteko eta horren ondorioak apaltzeko. Plan horrek orotara 119 ekintza biltzen ditu, eta helburua mundu mailako arazo hori minimizatzea da, baita berrikuntza sustatzea ere karbonoaren mendekotasuna murrizteko eta ekonomia iraunkorragoa sortzeko.

Norabide horretan aurrera egiteko nahitaezko baldintzetako bat hazkunde ekonomikoaren eta berotegi efektuko gasen sorreraren arteko lotura haustea da. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, nahiz eta azken urteetan bi aldagai horiek nolabait desbinkulitzen ari diren, berotegi efektuko guztizko isuriak % 21 ugaritu dira 1990 eta 2007 artean; BPGa, berriz, % 77 handitu da denbora-tarte berean.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, horrela eginez gero, ekoizpen sarea eta ekonomia bera ingurumena kontuan hartuta modernizatzeke eta garatzeko aukera estrategikoa izango da. Horregatik, isuriak murrizteko helburua betetzeko aurrerapausoak emateak esan nahiko du teknologian, berrikuntzan, enpresa sorkuntzan, eta garapen ekonomiko eta sozialean hobetzea.

Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planaz gain, 2008an BC3 ere ipini da abian; hau da, Basque Center on Climate Change zentroa. Hala, klima aldaketaren alorrean bikaintasuna ikertzeko Estatu mailako lehendabiziko zentroa bilakatu da. Zentro honek dituen funtzioak hauek dira: klima aldaketaren ondorioei buruz jakintza zientifikoa eta teknikoa bultzatzea, eta berotegi efektuko gas gutxiago isurtzeko ikerketa sustatzea. Zentro hau sortzeko, Ihebek, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Ikerbasque fundazioak hartu dute parte. Ikerketa zentro berri honek lankidetzaz hitzarmen bat sinatu du TERI institutuarekin, arlo horretako ikerlariak eta doktoratuak trukatzeko.

2008an Eusko Jaurlaritzaren eta Green Belt Movement elkartearen arteko hitzarmena berri da. Erakunde horrek zuhaitzak landatzen ditu eta berroihaneztatzeak egiten ditu Kenyan, eta horri esker berotegi efektuko gasen isurketak konpentsatzen dira. Hitzarmen horri esker, milioi bat zuhaitz baino gehiago landatu dira, eta haiek, guztira, 24.000 tona CO₂ baino gehiago xurgatzen dute.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila eta Eustat

11 Helburua

Klima aldaketara egokitzea



“Gestionar la adaptación al cambio climático minimizando nuestra vulnerabilidad ante los impactos previstos”

43. **Kompromisoa: KLIMA ALDAKETAREKIKO URRAKORRASUNA**

Euskal Autonomia Erkidegoak klima aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea

JOERA



44. **Kompromisoa: ARTIFIZIALIZAZIOA SAIHESTEA UHOLDE ARRISKUA DUTEN LEKUETAN**

Ahal den heinean, 100 urteko birgertatze-aldien aurrean arriskua dagoen eta gaur egun garapenik ez duten lekuetan artifizializazioa saihestea.

JOERA




2008an klima aldaketari egokitzeko hiru jarduera berri hasi ziren, 2007ko lau jardueri batzen zaizkienak. Horrek agerian uzten du jarduera arlo horretan joera positiboa dagoela.

Uholdeak izateko arriskua duten inguruei dagokienez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Urumea arroan uholdeak izateko arriskua txikitzeke plana egin du. Planak hamazortzi ekintza aurreikusten ditu, baita hirurogei milioi euroko aurrekontua ere Hernani, Astigarraga eta Donostiarako. Helburua arroko beharrezko espazioa handitzea da; hala, ibai horrek modu askeagoan egin ahal izango du bidea, baldin eta emaria handitzen bada, eta, era berean, uholde arriskuak nabarmen gutxituko dira udalerrri horietan.


Klima aldaketarekiko ardura handiagoak eta fenomeno horri egokitzeko ahalmenak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eginiko uholde arriskuaren azterlanetan bi aldagaiak sartzea eragin du.

Abian jarri da K-egoitzen azterlan proiektua. Planaren helburua klima aldaketari egokitzeko estrategiak diseinatzea da, bai gizakiak egokitzekoak bai tokiko sistema naturalak egokitzekoak, hainbat agertokitan oinarrituta.

Azkenik, hainbat prestakuntza eta sentsibilizazio jarduera gauzatu dira herritarrentzat, esaterako Ingurumen Sailak eta EITBk batera ekoizturiko Klima aldaketa izeneko multimedia programa interaktiboa. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren hainbat Saitetan, esaterako Nekazaritza eta Lurralde Antolamendu Saitetan, jardunaldi tekniko tematikoak ere egin dira.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila





Ingurumen
iraunkortasunerantz
goaz?

**ONDORIO
OROKORRAK**

Aurreko adierazleek izandako emaitzen aniztasuna aztertuta, zaila da kapitulu honen hasieran dagoen galderari erantzun sinplea ematea, aurretik iraunkortasun kontzeptua mugatuko duten adierazle nagusiak aukeratu gabe.

Ingurumen bektoreak hobetzen ari dira

Lehenengo hurbilketa batean iraunkortasunerantzko aurrerapena baloratu dezakegu **oinarrizko ingurumen bektoreen kalitatearekin (airea, ura, lurzorua)** zuzenean loturiko adierazleen bilakaeragatik. Erantzuna positiboa da zinez, eta desfase handiena dagoen eremuentzat dagoeneko jarduera planak diseinatu dira; horrekin, II. Ingurumen Esparru Programaren amaierarako ezarritako helburuak lortzea espero da.

Ekoizpen sistemaren ekoeraginkortasunaren bidean aurrera ari gara egiten, berotegi efektuko gas gutxiago isurtzen direlako eta balorizatu gabeko hondakin bolumen txikiagoa sortzen delako.

Bigarren erantzun maila batek aintzat hartzen du zer bilakaera izaten ari garen gure ekoizpen eta kontsumo sistemen ekoeraginkortasunean. Izan ere, iraunkortasunerantz aurrera egiten ariko gara, modu erlatiboan, **aberastasuna sortzen badugu eta gutxiago kutsatuta eta hondakin gutxiago sortuta kontsumitzen badugu.**

Kutsadura terminoarekin, lehenik, berotegi efektuko gasen isurketari (BEG) egin behar diogu erreferentzia. **BEG isurketak** irakurketa positiboa eskaintzen du, **2007an %1 murriztu** baitira, horrela 2002an hasitako beheranzko joerarekin jarraituz (hazkunde ekonomikoko tasa altuekin). Hori dela-eta EAE oinarri urteko isurketekiko % 21 gorago egongo litzateke, eta aldiaren amaierarako ezarritako helburuarekiko 7 puntu gorago (% +14). Erronka garrantzitsua da, baina 2008 da Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana aplikatzeko lehenengo urtea, eta horrekin aldi osoan hobekuntzak egongo direla aurreikusi da.

Dena den, azpimarratu beharra dago atal honen barruan defizit handia dagoela garraio iraunkorraren arloan. Arlo horretako joerak, **orain arte** negatiboak izan dira, eta beharrezkoa da aldaketa bat lortzea garraio moduetan. Azpiegitura alternatiboak eraikitzea eta erabiltzea (trenbidea, itsaso bidezko garraioa, hiri antolamendua integratzea) eta herritarren ohituretan aldaketa erradikalak gertatzea dira aldaketa horren oinarria, baina dena den, II. Ingurumen Esparru Programak aurreikusitakoa baino denbora tarte luzeagoa beharko da horretarako.



Hondakinen ekoizpenari eta tratamenduari dagokionez, bai industrialak bai hirikoak, emaitzak mistoak dira: **Sortutako hondakinen kudeaketa**, berreskuratzeak zein birziklatzeak gora egin baitute. Baina harago joan nahi badugu, sortutako hondakin **bolumena murriztea** bilatu beharko genuke, bai industrialak bai etxeak eta baliokideak. **Oraindik** ez dugu industriari buruzko daturik, baina ziurta dezakegu hiriko per capita hondakinek ezinbestean egiten dutela gora.

Ondorioz, birziklatze eta balorizazio adierazleek bilakaera egokia badute ere, hondakinen isurketarik ez egoteko helburura iristea ezinezkoa izango da 2013ra arte.

ekoizpen sistemaren ekoeraginkortasunean aurrera egiten ari gara baliabide naturalen, energiaren eta lurzoruaren kontsumo intentsitate txikiagoa dela-eta.

Nolanahi ere, urrats bat gehiago eman behar dugu iraunkortasuneratz aurrera egiten ari garen galderari erantzuteko, erantzuna kutsadura eta hondakin sorreran oinarritu beharrean baliabide naturalen kontsumoan eta **ekonomiaren desmaterializazioan** oinarritu behar da, horiek baitira epe luzeko iraunkortasunaren giltzarriak. Orain arte egin diren jarduerak, egiaz jasangarriago edo iraunkorrago egiten gaituzte. Baliabideen kontsumoa da une bakoitzean planetaren egoera iraunkorra neurtzen duena.

Hemen, adierazle nagusia nolabaiteko atzerapenarekin sortzen da haren konplexutasuna dela-eta; hortaz, azken datua 2005ekoa da: erabileraren adierazle agregatuak edo **materialen guztizko beharrak** (NTM) hazkundera izan zuen per capita kontsumoan (111 TM biztanleko), eraginkortasun globalak 2001eko mailarekiko aurrerapena erakusten badu ere (helburutzat urte horretako mailari

eustea ezarri da). Norabide egokian aurrerapena dakar, baina ez da inolaz ere nahikoa, baliabide fisikoen erabileraren ikuspuntutik.

Nolanahi ere, aurrera egiten ari gara **zenbait baliabide naturalen erabileraren eraginkortasunean**; uraz eta energiaren ari gara. Datu bereziki positibo gisa, nabarmentzekoa da energia berriztagarrien hazkundera. Dena den, **per capita kontsumoek gora egiten jarraitzen dute.**

Euskal Herrian balio handia duen beste baliabide baten erabilera ere nabarmentzekoa da, **lurzorua**, hain zuzen. Hirigintzak eragindako artifizializazioaren murrizketak ere aurrera jarraitzen du, baina mantsoago, azpiegiturak direla-eta. Hortaz, bigarren ikuspegi horretatik, oro har, baliabide naturalen erabileraren eraginkortasunak hobera egin du argi eta garbi, baina termino absolutuetan erabilerak gora egiten jarraitzen du.

Ikuspegi horretatik ere, bioaniztasunaren mantentzea (7. helburua) iraunkortasunari eginiko ekarpen garbitzat har dezakegu. **Tokiko baso masaren eta baso ziurtagarrien**



Ondorio Orokorrak

garapen adierazleak eta **nekazaritza ekologikoaren** sustapenari buruzkoak positiboak dira, baina desagertzeko arriskuan dauden espezieei buruzko neurketa esanguratsua edo gune bereziei buruzko katalogoan bildutako guneen kudeaketari buruzko informazioa falta da. Duela gutxi sorturiko bioaniztasuna aztertzeke Madariaga Dorretxeko zentroa tresna oso baliagarria izango da arlo horretan aurrera egiteko.

Azkenik, Euskal Herriko sistemaren eta habitataren urrakortasunari buruz gogoeta osagarri bat erants genezake, **klima aldaketaren eraginei egokitzeko** egiten diren aurrerapenen arabera.

Ikuspegi osagarri horiek guztiak batera hartuta erantzun dezakegu **euskal sistema iraunkorra dela 2008an** edo, ziurrago adieraz dezakegu, iraunkortasun maila handiagoetarantz abiatzen ari dela, argi eta garbi.

Joerak, hortaz, positiboak dira oro har. Baina hona hemen hurrengo galderak: (i) prozesu honetan egingo al ditugu ezarritako helburuak lortzeko moduko adina lorpen? eta (ii) tresna egokiak erabiltzen ari al gara?

Planaren lehen urte horretako erantzunek zuhurrak izan behar dute nahitaez, tresnen zati handi batek (urte honetan bertan indarrean jarri diren plan handiak) ez baitu izan denborarik bere tresnak hedatuta ikusteko.

Baina harago joan behar dugu. II. Ingurumen Esparru Plana baino urrunago, baita Ingurumen Iraunkortasuneko Euskal Estrategiaren jomuga baino harago ere. Gizarte gisa gero eta gehiago erabiltzen ditugu, termino absolutuetan, baliabide naturalak eta gero eta hondakin eta kutsadura global gehiago eragiten dugu. Hortaz, aurrera egiten jarraitu behar dugu **iraunkorrek izatera heltzeko**.







**Ingurumen
iraunkortasunerantz
goaz?**

**ETORKIZUNeko JOERA
NAGUSIAK**

Etorkizuneko joera nagusiak

Klima aldaketa eta energia ereduaren berkonfiguratzea dira Europar Batasunaren lehentasunezko jardura eremuak. Klima aldaketaren arloan, Europako Batzordeak 2020rako, herrialde garatuak berotegi efektuko gasen isurketak % 30 murrizteko helburua defendatzen du (oinarritzat 1990 urtekoak hartuta), nazioarteko negoziazio baten esparruan.

Azken helburu hori lortzeko, funtsezkoa da estrategia energetiko berriak aplikatzea. Estrategia horiek eraginkortasuna areagotzen lagunduko dute, baita iturri berriztagarriak erabiltzen ere, bai etxeetan bai industrian.



Energia eraginkortasuna areagotzeak berekin dakar, nahitaez, teknologia berriak garatzea. Epe motzerako helburua ikerketa indartzea da kostuak areagotzeko eta dauden teknologien errendimenduak hobetzeko. Epe luzera, beharrezkoa da karbono isurketa txikiak eragiten dituzten teknologia berrien garapena sustatzea, indar berezia eginez energia berriztagarrien eremuan, karbonoaren bilketa eta biltegiatzean, fisio eta fusio energiaren iraungarritasunean, eta Europako energia sareen garapenean.

Berotegi efektuko gasen eskubideen salerosketaren erkidegoko erregimena (RCCDE) beste gas batzuetara

zabalduko da, esaterako gas fluoratuetara, eta gaur egun araudi horrek estaltzen ez dituen sektoreetara (aireko garraioa). Estatu kideen artean kuotak esleitzeko prozedurak harmonizatuz eta RCCDE munduko beste leku batzuetan (Australia eta Kalifornia esaterako) dauden antzeko beste sistema batzuekin lotuz.

Garraioen sektorea, klima aldaketarekiko kezka dagokionez, eremu nagusietako bat da. Horregatik, aurrera egiten ari da ibilgailu industrial arinen eta turismoen fiskalitatea haien CO2 isurketa mailaren arabera izan dadin. Aireko garraioa RCCDEren barruan sartzeko aipaturiko asmoak, eta bioerregaien erabilera zabaltzekoak, haren ondorioak modu sistematikoan ikusita ere, lehentasunezko jardun eremuak osatzen dituzte.

Europako zenbait herrialdek dagoeneko zehaztu dute epe luzerako estrategia bat, esaterako Finlandiak, Klimaren eta energiaren epe luzerako estrategia izenekoarekin; bertan, bi arazoak lotzen ditu. Dokumentu honetan 2020. urterako helburuak ezartzen dira, eta 2050 urterako iradokizunak egiten. CO2 isurketak murrizteko helburuak lortzea zuzenean lotzen da etxebizitza, garraio eta energia sektoreen eraginkortasunaren hazkundearekin (horretarako energia eraginkortasuneko batzorde bat sortu da), energia berriztagarrien erabilera areagotzearekin, zenbait iturriren erabilera sakonduz, eta tarifatze sistema eraginkor bat (kosturi dagokionez) jartzearekin. Hornidura elektronikoa arrazoizko prezioan bermatuz, BEGak isurtzen ez dituzten instalazioei edo isurketa txikiak dituztenei lehentasuna emanda. Azkenik, estrategia ezartzeak eragiten dituen premia finantzarioak Estatuko aurrekontuei lotuko zaizkiela zehazten du, eta 2009rako 550 milioi euroko zuzkidura dagoela aurreikusia.

Epe ertainean, eta BEG isurketek eragindako arazoa, planetaren iraunkortasuna, eta hortaz, Euskal Herriarena, alde batera utzita, **gaur egungo eredu teknoproduktiboan gainean** jardun behar da, kontsumitzaileen eskaerak asetzeak baliabide naturalen erabilera jasanezina baitakar berekin. Energia eraginkortasuna edo materialen erabilera hobetzea, birziklatze eta balorizazio eredu ezin hobekin lotuta, ez


da nahikoa oreka iraunkorra lortzeko. Horrela, karbono isurpen txikiko ekonomia bateranzko trantsizioa funtsezko elementua izango da.

Adosturiko neurrietan sakontzeari uko egin gabe, bidea prestatu behar da **ekoherrikuntzako estrategia bat** abian jartzeko, epe oso luzean herrialdeko ekoizpen teknologian erabateko aldaketa eragiteko.

Estrategia horren erreferentziako ardatzak **erregai fosilak** epe luzean nahitaez ordeztea eta **ekonomiaren**

desmaterializazioan aurrera egitea dira, **produktuen bizi zikloaren** ikuspegi integralarekin.

Horretarako Euskal Herriko berrikuntza sistema berbideratu behar da iraunkortasunerantz (**ekoherrikuntza**). Hortaz, politika teknologiko berria bultzatu behar da, epe luzeko ikuspegiarekin, lidertza sendorarekin eta administrazio publikoaren inplikazioarekin, baita lankidetzeta pribatu sendoarekin ere.



Iturria: Carrillo-Hermosilla, del Rio & Könnölä, "Industrial policy strategies to promote eco-innovation", European Network on Industrial Policy (EUNIP) 2008 International Conference.

Etorkizuneko joera nagusiak

Sistema ekoeraginkor berri bat sustatzeko beharrezkoa izango da teknologia garapena asko bultzatzea eta gure berrikuntza sistema produktuen bizi-zikloaren azterketa eragingo duen iraunkortasun integralerantz bideratzea. Produkzio sistema berri baterantz abiatzeak, **bestalde**, gizarte osoa barnean hartuko duen **ikuspegi sistematikoa** eskatzen du. Horretarako, ekintzarako informazioan eta prestakuntzan aurrera egiten jarraitu behar da. Baina, aldi berean, sobera ezagutzen ditugun tresna ekonomikoetara jo behar da (fiskalitate berdea) ingurumen kostuen nazioartekotzea behar bezala egiteko. Horrela lortuko da gure ekoizpen eta zientzia-teknologia sisteman ezkutuan dagoen **berrikuntza potentzial guztia** azalerratezea, eta gaur egun askoren ustez zerga politiko garestia besterik ez dena **aukera** bihurtzea.

Azkenik, azpimarratu beharra dago ingurumen iraunkortasuneko estrategiak ezarritako epe luzerako helburuetan jarraitutasunari eutsi behar zaiola. Krisi ekonomiko sakoneko uneetan indar guztia neurri ekonomiko antiziklikoetan jartzeko arriskua dago, eta

horrela iraunkortasunaren ikuspegia alde batera uztekoa, beranduago jorratu dezakegun arazo txiki bat izango balitz bezala.


Zalantzarik gabe, atzeraldi ekonomikoak zenbait adierazle garrantzitsuren gaineko presioa murriztuko du, esaterako baliabide naturalen kontsumoa edo BEG isurketak:

«Ekonomia globalaren uzkurdura besterik ez da energiaren prezioa jaitsarazten duena, energia gutxiago erabiltzearen ondorioz».. Baina arazo sistematikoa ezkutuan jarraitzen du, eta indarberrituta itzuliko da. Egileek zuzen adierazi duten moduan, kreditu krisia dago gaur egungo atzeraldiaren oinarrian. Mehatxu global bat zen –errealitate egin dena– oraindik ere bere horretan jarraitzen duten beste bi mehatxu globalekin lotuta: energia krisia eta klima aldaketaren/iraunkortasunaren krisia.

Jeremy Rifkin








INGURUMEN URTEKARIA ANUARIO AMBIENTAL 08

INGURUMENAREN EBALUAZIOA ETA BILAKAERA EAEN
EVOLUCIÓN Y EVALUACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE EN LA CAPV



LEHENENGO ERANSKINA


44 konpromisoen eta jarduera aipagarrien deskargatzea



INGURUMEN URTEKARIA 08 ANUARIO AMBIENTAL

INGURUMENAREN EBALUAZIOA ETA BILAKAERA EAEN
EVOLUCIÓN Y EVALUACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE EN LA CAPV





© IHOBE 2008

www.ingurumena.net

www.ihobe.net

ARGITARATZAILEA: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saila - Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

EDUKIA: Dokumentu hau prestatzeko, LKS, S. Coop. enpresaren laguntza jaso dugu.

DISEINUA: Laluca Comunicación.





ITZULPENA: Mara Mara Taldea.

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.

44 Konpromisoen eta Jarduera Aipagarrien Deskargatzea

JOERAK

JOERAK 	JOERA POSITIBOA
JOERAK 	EZ DAGO JOERA ARGIRIK
JOERAK 	JOERA NEGATIBOA
JOERAK 	EZ DAGO EGUNERATUTAKO DATURIK


Emaitzak modu grafiko eta intuitiboan aurkeztu dira, adierazleak azken urteetan izan duen joera erakusten duten gezien bitartez. Azterketa hau partziala da nahitaez, adierazleak joera positiboa izan arren, II. Ingurumen Esparru Programan ezarritako helburuak lortzeko zailak izan baitaitezke. Alderdi hori Ingurumen Esparru Programaren tarteko ebaluazioan aztertuko da.

1. Konpromisoa: Airearen Kalitatea




Neurrizkoa eta onargarria mailak % 95 baino gehiago izango diren aire kalitate indizea lortzea; aldiz, txarra, oso txarra eta arriskutsua mailak % 1 baino gutxiago izatea. Txarra, oso txarra eta arriskutsua maila jasaten duten herritar kopurua % 20 murriztea 2006arekin alderatuta

Airearen kalitatearen bilakaerak errekupeazio joera izan zuen 2007an, gutxi gorabehera 2005eko mailetara hurbilduta. Aurreikusitakoaren arabera baliteke airearen kalitatearen helburura iristea ezarritako epean.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

2. Konpromisoa: PM₁₀ Partikulak



Airearen kalitateari buruzko jarduera-planak egitea beharrezkoa den eremutan urteko batez besteko partikula kontzentrazioa gutxienez % 10 murriztea

PM₁₀ partikulen kontzentrazioak murrizketa txiki bat izan du eta horrela konpromisora hurbiltzen gara. Nolanahi ere, eskualdeka aztertzen badugu, agerian geratzen da konpromiso horren bilakaera duala. Oria Garaia edo Idiazabal bezalako eskualdeetan isurketen murrizketa handia izan da azken urtean, eta Urola Garaikoekin edo Nerbioi Garaikoekin kontrajartzen da, haiek igo egin baitira.

Urteko batez besteko PM ₁₀ kontzentrazioa (µgr/Nm ³)						
						KONPROMISOA
	2003	2004	2005	2006	2007	2010
Hegoaldeko Araba	17	15	16	17	15	
Nerbioi Garaia	23	26	25	28	31	
Oria Garaia	32	36	34	34	30	30,3
Urola Garaia	32	33	33	31	37	28,2
Nerbioi Behea	34	36	36	36	35	32,2
Donostialdea	37	33	28	28	28	25,3
Enkaterrak	28	20	22	23	24	
Ibaizabal - Deba Goiena	37	37	37	37	31	33,2
Kostaldea	31	26	26	25	21	22,8
Arabako Lautada	29	28	26	27	25	24,4
Arabako Errioxa	-	15	22	23	19	
Gainditzeak dituzten eremuen batez bestekoa	33	32	31	31	30	28

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

3. Konpromisoa: PM_{2,5}



Sareko estazioetan, Europar Batasunak zehaztuko duen PM_{2,5} en urteko muga-balioa ez gaingitzea lortzea.

PM₂₅ isurketak Europar Batasunak ezarritako mailetan mantendu dira, EAEko neurketagune guztietan.




Número de estaciones				
EBko muga gaingitzen duten neurketaguneen kopurua	2005	2006	2007	2010
		0	0	0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila



NOx, SO₂ eta konposatu organiko hegazkorren isurpenak hurrengo portzentajeetan murrizten laguntzea 1990eko datuetan oinarrituta: NOx: % -31, SO₂:%-64, konposatu organiko hegazkor ez metalikoak: % -58. Emandako datua ez da SO₂ baizik eta SOx.

Anhidrido sulfurosoek duten bilakaera positiboa izan arren, helburu hori lortzetik urrun gaude, baldin eta ez badira hartutako neurriak sakontzen, SOx eta konposatu organiko hegazkor ez metalikoen joera negatiboak direla eta.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

5. Konpromisoa: Zarata



Osasunaren Mundu Erakundeak aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata mailak jasaten dituzten herritarren kopurua % 10 murriztea 2006 urtearekin alderatuta.

Ez dago 2007 urteari dagokion datu eguneraturik




6. Konpromisoa: Azalek Uroak




Azaleko ur masak babestu, hobetu eta birsortzea haien % 80k egoera ekologiko ona izatea lortzeko.

IFQ-R indizeak ur masaren egoera baloratzeko aukera ematen du, baldintza fisiko-kimiko orokorren arabera. Baldintza horiek gizakiak bitarteko horren gainean egiten duen presioaren arabera dira, eta bereziki, egiten den kutsadura puntualagatik.



Iturria: Ura. Uraren Euskal Agentzia





Iturria: Ura. Uraren Euskal Agentzia

Ibaiko uren IFQ-R indizearen hobekuntza nabarmena den arren, MB indizeak ingurumen helburuekiko urruntzea erakusten du, eta hortaz, ezin da ondorioztatu azken urtetan EAEko ibaien egoera ekologikoaren hobekuntza egon denik, kalitate fisikokimiko orokorraz gain beste faktore batzuek ere garrantzia baitute, esaterako beste kutsatzaile espezifikoek (metalak, organikoak...). Eta kalitate fisikokimikoaren hobekuntzak ez dauka eraginik, denbora eskala berean, kalitate biologikoaren hobekuntzan. Azken kasu horretan, aldiz, denbora muga handiagoa da.


Gaur egun EAEn egoera ekologiko okerreanean dauden arroak Nerbioi-Ibaiazbalekoa, Debakoa eta Oriakoa dira. Ibaietako uraren kalitatean eragin handiena izaten ari diren elementuak arazketa eta oraindik eznahikoa den

saneamendua dira, tarteka isurketa industrialak gertatzen dira, baita nekazaritza jarduerak eragindako kutsadura lausoa ere, ibaiko habitataren alterazioa, edo bertako komunitateen alterazioa kanpoko espezieak sartzeagatik (beste batzuen artean zebra muskuilua).

Ibaiko uren kalitateari buruzko etorkizuneko aurreikuspenak positiboak dira, eta hurrengo urteetan hobekuntzak gertatuko direla antzeman da, batez ere saneamendu sarea hobetzeko eginiko ahaleginengatik, EAEko saneamenduko plan zuzentzailean oinarrituta, ibai-ertzak leheneratzeko eta babesteko aurreikusitako jarduerengatik, baita kutsadura murriztu eta hobekuntza bultzatuko duten programa espezifikoaren garapenagatik ere.



Kostaldetako uren kalitatea - M - AMBI indizea




Iturria: Ura. Uraren Euskal Agentzia

■ Ingurumen helburua betetzen du
 ■ Ez du ingurumen helburua betetzen

2007ko ingurumen inpaktuari buruzko azterlanean, kostaldeko uren indize biotikoa kalkulatu da, eta honako kategoria hauek bereizten dira: batez besteko kutsadura, handia edo muturrekoa, kutsadura arina, kutsatu gabeak. Ura-k, 2008an M-AMBI adierazlearen datuak eman dizkigu. Datu horiek aurreko azterlaneko emaitzen desberdinak dira, eta ingurumen helburuaren betetze edo ez betetze kategoriak besterik ez ditu ematen. Grafikoan 2008ko datuak adierazi dira eta ez datoz bat aurreko argitalpenekoekin.

Estuarioetako uretan antzematen dira trantsizioko eta kostaldeko ur-masen kalitate biologikoaren inguruko arazo handienak, nahiz eta azken urteetan bilakaera positiboa izan duten. Oraindik, 2010eko ingurumen helburua lortzeko jarduteko marjina handia dago. Kostaldeko urei dagokienez, 2007an bi neurketa guneak arazo puntualak izan bazituzten ere, uren kalitatearen balorazioa positiboa da eta 2010eko helburuak beteko direla itxarotekoa da.

Trantsizioko eta kostaldeko uren ambi adierazlearen egoera 2007an



Iturria: Ura.
 Uraren Euskal Agentzia

2007ko egoera. MB indizea

Neurketa Guneak

- Oso ona
- Ona
- Egokia
- Eskasa
- Txarra

Masak

- Oso ona
- Ona
- Egokia
- Eskasa
- Txarra



Lakuetako eta barnealdeko hezeguneetako ur masei dagokienez, azken urteetan kalitate ekologikoaren hobekuntza egon den arren, eznahikoa da ezarritako

helburuak lortzeko. 2007an hezeguneen % 27k bakarrik betetzen zituzten ingurumen helburuak.

7. Konpromisoa: Ur Artifizialak



Ur masa artifizialak eta oso aldatuak babestu eta hobetzea haien % 80ak potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izatea lortzeko.



8. Konpromisoa: Lurrazpiko Urak



Lurpeko ur masak babestu, hobetu eta leheneratzea. Ur horien ateratzearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren % 80k egoera ona izatea lortzeko.


Ez dago eguneratutako daturik

9. Konpromisoa: Hondakin Urak



Saneamendu-azpiegitura publikoek jaso beharreko herri eta hirietako hondakin-urak, biztanleen % 97ari dagozkionak, beraien isuriarentzat eta hartzailearentzat egokiak diren HUA motako araztegietan tratatzea lortzea.

Konpromiso horren bilakaerak joera positiboa erakusten du 2003. urtetik, eta hortaz, HUAk hornituriko biztanle portzentajea areagotu da, eta saneamendu azpiegitura horiek eraikuntza eta proiektu fasean dauden biztanleriaren ehunekoa murriztu da. Nolanahi ere, 2010eko helburua lortzeko, gaur egun proiektu fasean dauden instalazioen eraikuntza eta haiek amaitzea areagotu behar da.




10. Konpromisoa: Bainatzeko Urak



Bainatzeko uretako lagin-hartze puntuen % 95ek kalifikazio ona edo onargarria izatea lortzea.

Bainatzeko uren kalitatearen konpromisoa 2007. urtean lortu zen; laginketa puntuen % 95ek balorazio ona edo onargarria lortu zuen.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.


11. Konpromisoa: Kontsumo Urak



Euskadiko biztanleriaren % 95ari kalifikazio egokia duen kontsumo ura hornitzea lortzea.

gainetik ezartzen dira. Nolanahi ere, beharrezkoa da lanean jarraitzea biztanleria guztiak kalitateko ura jaso dezan, eta gaur egun kalitate txikiko ura jasotzen duen biztanleriaren % 2 hori desagertu dadin.

EAEko bainatzeko uren kalitatea bezalaxe, kontsumo uren kalitate estandarrak ere 2010eko konpromisoaren



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

3 HELBURUA: LURZORUAREN KUTSADURA PREBENITZEA ETA KUTSATUTAKOA


“Lurzorua egoki kudeatzea, kutsadura historikoaren lehentasunezko berreskurapenaren bidez eta beste kutsadura mota batzuk prebenitzea.”

12. Konpromisoa: Lurraren Kutsadura Prebenitzea



Lurzorua kutsaturari aurre hartzea ditugun bitarteko espezifikoa erabilita (aurreiazko egoera txostenak).

Adierazle horren bilakaera positiboa den arren, aintzat hartu behar da erakusten diren datuek jaso diren aurreiazko txostenenak direla, eta hori ezin da lotu urte bakoitzean kudeatu den kutsatutako lur hektareekin, hurbilketa gisa hartu behar dira, ordea.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

13. Konpromisoa: Lurzorua Leheneratzea Erabilera Berrietarako



Potentzialki kutsatuta dauden eta hirigintzako plangintzak beste erabileraren bat ematea edota jardueraren bat gauzatzea aurreikusita duen 407 hektarea garbitzea.

Konpromiso horren bilakaera positiboa da eta agerian uzten ditu lurzoru berria okupatzeko eta EAEn urria den baliabide hori zaintzeko egiten ari diren ahaleginak.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

14. Konpromisoa: Lurzorua Leheneratzea Erabilera Berririk Gabe



Potentzialki kutsatuta dauden eta hirigintzako plangintzak beste erabileraren bat ematea edota jardueraren bat gauzatzea aurreikusita ez duen 35 hektarea garbitzea.

Gaur egun potentzialki kutsatuta dauden lurak leheneratzeko jarduerak, hiri planeamenduak erabilera berririk aurreikusten ez duen eremuetan, urriak dira, eta gauzatzen direnak, normalean zaborteziak egiteko izaten dira.

15. Konpromisoa: Zabortezi Inaktiboak



Jabetza publikoko zabortezi ez aktiboen ingurumen kontrol eta jarraipen etengabea.

Hurrengo koadroko datuak 2006koak dira, eta egin zen lehen estimazioari egiten diote erreferentzia. Hori dela-eta, ezin da zehaztu adierazleak 2007an izan duen bilakaera. Nolanahi ere, erakundeek egiten dituzten

zabortezi inaktiboen kontrol eta jarraipen jarduerari buruzko erregistro bat egiten ari dira. Amaitzen dutenean, erregistroak datu eguneratuak emango ditu EAEn horrelako instalazioak dituzten azalerei buruz. 2008an ez da zabortezi inaktibo publikoen kontrol edo jarraipen jarduerarik egin.



LURRALDE HISTORIKOA	KOKAPEN KOPURUA	AZALERA (Ha)
ARABA	86	88
BIZKAIA	138	491
GIPUZKOA	65	150
GUZTIRA	289	729


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila



16. Konpromisoa: Zenbatu Gabeko Ura

Zenbatu gabeko herrietako ur eskaria murriztea % 25 izan arte hornitutako biztanleriaren % 80an. Adierazle hori kalkulatzeko daturik ez dagoenez, esan bezala, hurbilketa bat egiten da banaketa sarean erregistraturiko ur galeren portzentajearen oinarrituta.

Banaketa sareko ur galeren bilakaera positiboa izan da; 2000. urtean % 29,3koa zen, eta gero % 12,7koa. Nolanahi ere, azken lau urteetan joera hori nolabait geratu egin da.



Iturria: EIN


17. Konpromisoa: Ur Eskara Handia



Gero eta handiagoa den ur hornidura publikoko eskaria eta industria zein nekazaritza jardueretarako hartune propioen bitartez egiten dena % 20 murriztea 2001 urtearekin alderatuta.

EAEko ur zerbitzua altan emateko eskaera % 6,4 jaitsi zen 2006an, aurreko urtearekiko, eta hori positibotzat jo da, 216,8 mila m³ ur lortu arte. Itxarotekoa da 2009tik aurrera, uraren gainerako kanona abian jartzen denean, beharrezko joera hori nabarmen areagotuko dela.

Adierazlea lortu den kalkulatzeko datu zehatzik ez badago ere, ur eskaera osoa aztertzea erabaki da, sektoreka banatu gabe, konpromisoak ezartzen duen bezalaxe.





Iturria: EIN

18. Konpromisoa: Materialen Kontsumoa



Eraginkortasun materiala 2001. urteko mailatan mantentzea baliabideen kontsumoan.

Gaur egungo bizi estiloa dela eta, materialen per capita premiak gero eta handiagoak dira. Egoera hori, epe luzean, jasanezina da eta beharrezkoa izango da gaur dugun kontsumo eredua haustea.




19. Konpromisoa: Energia Aurreztea



2010. urtean 975.00 tpb-ko energia aurrezkoa lortzea.

Azken urteetan metaturiko energia aurrezkiak goranzko joera izan du eta hori positibotzat jo da; 2007an,

dagoeneko, 572.500 tpb-ko zifra lortu da, eta azken urteetako hazkundearen erritmoari eutsiz gero, posible izango da konpromisoa 2010. urterako betetzea.



Iturria: EEE


20. Konpromisoa: Energia Eraginkortasuna



Intentsitate energetikoa % 16 hobetzea 2000 urtearekin alderatuta.

Azken zazpi urteetan EAEko energia intentsitatea murriztu egin da etengabe, eta 2007an 2000. urtean baino % 10

txikiagoa zen. Horrela, hazkunde ekonomikoaren eta energia kontsumoaren hazkundearen arteko harreman zuzena hautsi da, eta energia eraginkortasuna areagotu da. Horrek guztiak 2010erako ezarritako konpromisora hurbiltzen gaitu.



Iturria: EEE eta EUSTAT


21. Konpromisoa: Jatorri Berriztagarriko Elektrizitatea eta Kogenerazioa



Energia kontsumoaren % 29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bitartez lortzea.

2007. urtean kogeneraziotik eta energia iturri berriztagarrietatik etorritako ekoizpen elektrikoaren %

4,6 hazi bada ere oraindik ez dira 2005ean erregistraturiko mailak lortu. Hortaz, hazkundea egon den arren, oraindik urrun gaude 2010erako konpromisotik. Bestalde, jatorri berriztagarriko energia elektrikoaren kontsumoak 2007an, % 3,3ko portzentajea baino ez zuen.




22. Konpromisoa: Bioerregaiak



Garraioan urtero 177.000 tpb bioerregai kontsumitzea lortzea.

2007. urtean, izugarri hazi da bioerregaien erabilera garraioaren sektorean EAEn. Nolanahi ere, oraindik

2010erako ezarritako 177.000 tpb-n helburua lortzetik urrun gaude. Itxarotekoa da hurrengo urteetan energia iturri horren kontsumoaren hazkunde handia egotea, erregai fosilen ordeztuz.



6 HELBURUA: HONDAKINAK MURRIZTEA ETA TRATATU GABEKO ISURKETARIK EZA

“Hondakinen ekoizpena murriztea eta haien kudeaketa hobetzea hondakin ez tratatuen isurketa maila hutsera iritsi arte”

23. Konpromisoa: Industria Hondakinen eta Balio Erantsi Gordinaren Arteko Lotura Haustea



Industriako hondakin arriskutsuen sorrera eta industriako balio erantsi gordina bereiztea.


Ez dago datu eguneraturik.

24. Konpromisoa: Hondakin Arriskutsuak Balorizatea



Hondakin arriskutsuetako baliabide materialak berreskuratzea, horien birziklatze tasa % 65era arte igota.

2007. urtean hondakin arriskutsuen % 57 birziklatzearen bitartez balorizatu da. Horrek esan nahi du 2010erako ezarritako konpromisora hurbiltzen ari garela.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

25. Konpromisoa: Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak Birziklatzea



EAEEn sortutako eraikuntzako eta eraispenerako hondakinaren % 50 berrerabiltzea eta birziklatzea lortzea.

2005-2007 aldian goranzko joera antzeman da eraikuntzatik eta eraispeneratik datozen hondakinaren berrerabiltzean eta birziklatzean. 2007an, sortutako 1.782.251 tonatik 623.788 birziklatu dira, hau da, % 35, konpromisoan ezarritako % 70etik oso urrun.



Iturria: Eusko Jurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Informazioaren kalitatea txikia da planta mugikorretan birziklatzen diren eraikuntzako eta eraispenerako hondakin tonen datua estimatu egin baita.

26. Konpromisoa: Hondakin ez Arriskutsuak Birziklatzea




Industria jatorriko hondakin ez arriskutsuen birziklatze tasa % 75 izatea lortzea.

2005. urtean industria sektoreak guztira 3.439.662 tona hondakin ez arriskutsu sortu zituen, hau da, % 12,6ko hazkundera 2004 urtearekiko. Nolanahi ere, birziklatze

portzentajeak behera egin du aurreko urtearekiko, 2004an % 63koa zen eta 2005ean % 59koa. Murrizketa horren arrazoia altzairuaren industrian zepa gutxiago produzitu izana da.

Hondakin industrial ez arriskutsuen birziklatzea



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Informazioaren kalitatea txikia da, zifra hauek 2005eko hondakin ez arriskutsuen inbentarioko zifraren lehen hurbilketa bat baitira, eta oraindik datuak zehazteke daude.

27. Konpromisoa: Hiri Hondakinak Birziklatzea




Sortutako hiri hondakin guztien %35 birziklatzea

Azken urteetan birziklatutako hiri hondakinaren portzentajeak goranzko joerari eutsi dio sortutako guztizkoaren % 30,6ra iritsi arte. Hortaz, 2010erako


ezarritako konpromisotik oso hurbil gaude. 2007an guztira 374.216 tona hiri hondakin birziklatu ziren, 2006an berreskuraturiko kantitatearekiko % 7,5 gehiago.

Hiri hondakinaren birziklatze %



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Hiri hondakinen sorrera biztanleko



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

28. Konpromisoa: Hiri Hondakinik ez Isurtzea




Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko isurketarik ez egitea.

Ezin izango zaito hiri hondakin guztiak tratatzeko eta zabortegira ezer ez bidaltzeko konpromisoari heldu II.

Ingurumen Esparru Programak ezarritako 2010erako epean, eta hortaz, epea zabaldu beharko da. 2013rako lortuko dela aurreikusi da, Lurralde Historikoetan abian jarriko diren zenbait azpiegiturari esker.

Hiri hondakinen isurtzea



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. 2007ko ingurumen adierazleen argitalpeneko 2004ko hiri hondakinen isurketari buruzko datua eguneratu da.

29. Konpromisoa: Desagertzeko Arriskuan Dauden Animalia



Desagertzeko arriskuan edota egoera kritikoan dauden fauna eta flora espezieen populazioek 2007. eta 2010. urteen artean joera positiboa izatea lortzea.

Desagertzeko arriskuan dauden espezie gehienek joera egonkorra edo beheranzko joera izan dute azken

neurketetan, bilakaera positiboa izan duten bakarrak Igaraba, *Diphasiastrum alpinum* eta *Genista Legionensis* izan dira. Nabarmendu beharra dago benarriz gorritaren populazioak desagertu egin direla EAEn, eta hori negatibotzat hartzen da. 2008an ez da inongo lurraldeko kudeaketa plan berririk onartu.

ESPEZIEA	ERREFERENTZIA URTEA	EBALUAZIO URTEA	DUELA GUTXIKO JOERA
Zaparda	2001	2007	BEHERANZKOA
Mazkar arantxaduna □	2001	2007	BEHERANZKOA
Ibai - kabuxa	2001	2007	EGONKORRA
Hegoaldeko zuhaitz-igela	2001	2007	EGONKORRA
Ugatza	2001	2006	EGONKORRA
Bonelli arranoa	2001	2007	EGONKORRA
Desman piriniarra	2001	2006	EGONKORRA
Ferra-saguzar mediterranearra			
Bechstein saguzarra			
Bisoi europarra	2000-2001	2004-2005	BEHERANZKOA
Igaraba	1995	2007	GORANZKOA
Antennaria dioica	2001	2006	BEHERANZKOA
<i>Diphasiastrum alpinum</i>	2001	2006	GORANZKOA
<i>Genista legionensis</i>	2001	2006	BEHERANZKOA
<i>Matricaria maritima</i>	2001	2006	EGONKORRA
<i>Pentaglottis sempervirens</i>	2001	2006	EGONKORRA
<i>Ranunculus amplexicaulus</i>	2001	2006	GORANZKOA
<i>Eriophorum vaginatum</i>			


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

30. Konpromisoa: Tokiko Baso Azalera



Tokiko baso azalera 10.000 hektareatan handitzea 2006koarekiko (baso inbentarioa) Adierazle hau ezin da eguneratu iturria baso inbentarioa delako

Azken hogei urteetako tokiko baso azaleraren bilakaerak goranzko joera izan du, eta horrek esan nahi du EAEko flora eta paisaia leheneratzen ari direla. 2005ean azalera hori 187.191 Ha-tan zegoen neurtuta, eta beraz, 1996. urtearekiko % 4,6ko hazkundera erakusten du.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

31. Konpromisoa: Hezeguneak



Euskadiko hezeguneen lurralde plan sektorialean sartutako hezeguneetako 50 hektarea berreskuratzea.

2008an 20 ha-tan Baccharis halimifolia kentzeko jarduerak egin ziren, Urdaibaiko hezeguneetan.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

32. Konpromisoa: Nekazaritzako eta Ingurumeneko Neurriak




Bioaniztasunaren babesarekin lotutako nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak gutxienez Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren % 10ean ezartzea lortzea.

Adierazle hori ezin da eguneratu gaur egun ez baitago ingurumen neurriei aplikaturiko azaleraren daturik, 2007-2013 aldirako Landa Garapen Iraunkorreko Plan berria aplikazio prozesuan baitago. Nekazaritzako eta ingurumeneko konpromisoei loturik dauden azalera

bakarrak aurreko programazio alditik datoz (2000-2006) eta oraindik ez da azalera berrien eskaerarik jaso. 2009an 2008ari dagokion behin betiko zifra jasoko dela espero da.

Ingurumeneko eta nekazaritzako babes neurriei atxikitako nekazaritza azalera goranzko joera izan du datuak dituen aztertutako aldi osoan. Nabarmendu beharra dago 2004an, dagoeneko, bete zela 2010erako konpromisoa.

Ingurumen eta nekazaritzako babes neurriei atxikitako nekazaritza azalera



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila


33. Konpromisoa: Nekazaritza Ekologikoa



Nekazaritza ekologikorako erabilitako azalera handitzea 1.200 hektareatarara heldu arte. 2007.

2008ko uztailean guztira 1.109 hektarea zeuden nekazaritza ekologikora bideratuta; aurreko urtearekiko % 4,6 gehiago. 2000. urtetik adierazle horren goranzko joera egonkorra izan da, eta horrek, 2010ean 1.200 hektareatako konpromisoa lortu daitekeela pentsarazten du.

Nekazaritza ekologikoari eskainitako azalera



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila


34. Konpromisoa: Baso Ziurtagiriak



Baso ustiapen ziurtatuen azalera 50.000 hektareatakoa izatea lortzea.

Basoen kudeaketa iraunkorra bermatzen duen Basogintza Ziurtaginerako Europako Sistemaren ziurtagiriari atxikitako baso azalera % 2,6 hazi da EAEn, aurreko urtearekiko. Goranzko joerari eutsiko zaiola bermatuta eta 2010erako ezarritako konpromisoa gaindituta.

2009. urtearen hasierarako auditoretza berri bat dago programatuta, eta ordurako ziurtaturiko baso azaleraren hazkunde nabarmena aurreikusi da. 2008ko baso azalera ziurtatuaren datuak (53.743 ha) 2008ko irailekoak dira.



Iturria: Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederazioa

35. Konpromisoa: Espezie Inbaditzaileak



Espezie exotiko inbaditzaileen presentzia murriztea.

Ez da 2010erako konpromiso kuantitatibo zehatzik zehaztu hura lortu den ala ez adierazi ahal izateko

Baccharis halimifolia kentzeko Urdaibaiko 20 ha-tan eginiko jardueraz gain, diagnostikoak egin dira fauna eta flora exotiko inbaditzailea aztertzeko. Horrek, espezie horiek epe ertain eta luzean gainditzeko estrategiak zehazten lagunduko du.

36. Konpromisoa: Natura Sarea




Natura 2000 Sareko espazioen artean, eskualde biogeografiko atlantikoan dauden guztiak eta eskualde mediterraneoan daudenen % 30 kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea lortzea.

Garapen iraunkorrerako Europako strategiaren berrikuspenean habitat horien kudeaketa hobetzeko premia dago jasota, eta 2010. urtea ezartzen da Natura Sarea 2000n bildutako eremuak izendatzeko eta haien kudeaketa eraginkorra egiteko. Azken atal hori da EAEn betetze maila txikiena duena, eremu babestu gehienek

ez baitituzte kudeaketa plan zehatzak. Horrela, aitorturiko 9 parke naturaletatik lauk ez dute Erabilera eta kudeaketarako onarturiko plan zuzentzailerik (Pagoeta, Aralar, Aizkoarri-Aratz eta Arañon).

Gaur egun izapidetze fasean dago Natura Sarea 2000n bilduriko lekuen 23 kudeaketa planen idazketarako aholkularitza. Eta Kantabriako mendilerroa KBE izendatzeko prozedurarekin aurrera jarraitu da, 2007aren amaieran behin-behinean onartu zena.




37. Konpromisoa: Pasaia



Euskadiko Pasaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoko guneen % 10ek kudeaketako neurri egokiak izatea.

2008ko uztailean onartu zen Deba-Zumaia kostaldeko tarteko baliabide naturalen antolamendu plana.






38. Konpromisoa: Pertsonen Mugikortasuna



Bidaiarien banaketa modala bideratzea motorrik gabeko garraiorantz.

Adierazlearen definizioa aldatu egin da datu eguneratuagoak lortzeko.

EAEko biztanleek eragindako mugikortasuna % 11,4 hazi da 2003ko datuekiko; 2007an eguneko 6.087.600 joan-etorrira iritsi da. Nolanahi ere, ibilgailua izan da gehien erabili den garraio-bidea, iraunkorrakoak diren beste batzuen kaltetan. Mugikortasun eredu horri eusteak 2010erako ezarritako helburuak lortzetik urruntzen gaitu.




39. Konpromisoa: Merkantzien Garraioa




Merkantzien garraioaren banaketa modala berriro bideratzea, trenbide bidezkoa azalera-garraio osoaren % 15 izatera irits dadin. Hau da, errepide bidez gutxiago egin dadin eta trenbidez gehiago.

Pertsonekin gertatzen den bezalaxe, salgaien garraioan ere mugikortasun eredu ez da iraunkorra. Errepide bidezko garraioak nagusi izaten jarraitzen du; 2006an % 81,4ko sartzeko kuota izan zuen. Beste aldean, trenbideak beheranzko joerari eutsi dio urtez urte, 2006an % 2,5eko kuota lortuta.



Trenbidez garraiaturiko merkantzien %



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

40. Konpromisoa: Hirigintza Jardueragatiko Artifizializazioa




Urtero hirigintza jardueragatik artifizializatzen den hektarea kopurua murrizten joatea.

Adierazle hori kalkulatzeko formula mantendu egin da 2003tik eskuragarri dagoen segidari jarraipena emateko, Lurraldearen Antolamendu Sailaren arabera oso zuzena ez den arren, artifizializazioari eragiten ez dioten espazio libreak barnean hartzen dituelako, espazio horiek ez baitute inolako eraldaketarik jasaten. Azalera hori kentzen badugu, hirigintza jardueragatik EAEn artifizializatutako hektarea berrien hazkundea 465,86 Ha izango litzateke, azterlanean aipatzen ditugun 454 Ha-k izan beharrean.

2007an 454 hektarea artifizializatu berri gehitu dira EAEn hirigintza jarduera dela-eta, 2006arekin alderatuta; horrela, 47.556 Ha-tik 47.107 Ha-ra igaro gara. Horrek % 66ko hazkundea egon dela esan nahi du, eta hori negatibotzat hartzen da eta 2005ean hasitako beheranzko joera hausten du.

Hazkunde hori, hein handi batean, jarduera ekonomikoek (281 Ha gehiago, % 62,1) eta etxebizitza erabilerekin (183,19 Ha, % 40,4) eragin dute.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

41. Konpromisoa: Azpiegiturak Eraikitzeagatiko Artifizializazioa



Urtetik urtera azpiegitura berriak eraikitzeagatik artifizializatzen den hektarea kopurua murrizten joatea.

2007an guztira 27 hektarea artifizializatu ziren EAEn azpiegitura berriak eraikitzeagatik (oinarrizko azpiegiturak, bideak, portuak, aireportuak eta trenbideak). Horrek, aurreko urtearekiko % 53ko murrizketa esan nahi du.



Iturria: Eusko Jurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila


42. Konpromisoa: Berotegi Efektuko Gasen Isurketak




2010erako, Kyotoko Protokoloan araututako berotegi efektuko gasen isurpen guztiak mugatzea, 1990eko isurpen mailaren % 14 gainditu ez dezaten.

Berotegi efektuko gasen isurketak 25,3 milioi tona izan ziren 2007an, hau da, aurreko urtearekiko % 0,8ko murrizketa. Murrizketa txiki hori alde batera utzita, azken

lau urteetan beheranzko joera bati eutsi zaiola ikus daiteke. Nolanahi ere, 1990arekiko, metaturiko isurketen hazkundea % 21ean kokatzen da, eta Kyotok ezarritako helburuak, ordea, isurketen hazkundea % 14ra mugatzen du. Horregatik adierazi dugu beharrezkoa dela klima aldaketaren aurkako neurriak biderkatzea eta areagotzea.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

BEG isurketen banaketa isurketa iturriaren arabera. 2007 urte



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

11 HELBURUA: KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA


“Klima aldaketara egokitzeko prozesua kudeatzea aurreikusitako eraginen aurrean gure urrakortasuna txikitzeko.”

43. Konpromisoa: Klima Aldaketarekiko Urrakortasuna



Euskal Autonomia Erkidegoak klima aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea.

2008an klima aldaketarekiko urrakortasuna murrizteko hiru jarduera egin ziren, eta 2007an egindako beste lauei batuta, guztira zazpi jarduera egin dira arlo horretan.



Iturria: Eusko Jauriaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila


44. Konpromisoa: Uholde Arriskua Duten Eremuetan Artifizializazioa Saihestea



Ahal den neurrian, gaur egun garatu gabe dauden eta 100 urteko itzulera aldian uholdeak jasateko arriskua duten eremuen artifizializazioa saihestea.

Ez dago eguneratutako daturik

I. ERANSKINA
44 konpromiso eta jarduera aipagarriak



INGURUMEN URTEKARIA ANUARIO AMBIENTAL 08

INGURUMENAREN EBALUAZIOA ETA BILAKAERA EAEN
EVOLUCIÓN Y EVALUACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE EN LA CAPV



II ERANSKINA

Ingurumen plan sektorialen ebaluazio sintetikoa



INGURUMEN URTEKARIA 08 ANUARIO AMBIENTAL

INGURUMENAREN EBALUAZIOA ETA BILAKAERA EAEN
EVOLUCIÓN Y EVALUACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE EN LA CAPV





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

© IHOBE 2008

www.ingurumena.net

www.ihobe.net

ARGITARATZAILEA: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saila - Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

EDUKIA: Dokumentu hau prestatzeko, LKS, S. Coop. enpresaren laguntza jaso dugu.

DISEINUA: Laluca Comunicación.

ITZULPENA: Mara Mara Taldea.

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.

AURKIBIDEA

	Orria
Metodologia	5
1 2006-2010 eperako Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana	6
2 2007-2012 eperako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Kutsatuen Plana	16
3 2008-2012 eperako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana	22

METODOLOGIA

Jarraian, ingurumen arloan ezartzen ari diren plan sektorial nagusien aurrerapen mailaren ebaluazio sintetikoa agertuko dugu. Hain zuzen ere, ondorengoak:

- 1.2006-2010 aldirako ingurumenaren aldetik iraunkorra den euskal kontsumo plana.**
- 2. Klima aldaketaren aurkako 2008-2012 aldirako euskal plana.**
- 3. 2007-2012 eperako Lurzoru Kutsatuen Euskal Plana.**

Hiru plan sektorialak ebaluatzeko metodoa homogeneizatzeko, eta egindako deskargua ulertu eta argitzearren, semaforo sistema bat sortu dugu, hiru planetan jasotako ekintzak gauzatzean izan diren aurrerapausoen edo aurrerapenen maila adierazteko.



BERDEA

Aurreikusitako ekintzak erabat edo neurri handi batean gauzatu dira. Joera positiboa da.



HORIA

Aurreikusitako ekintzak martxan daude, baina lan gehiago egin behar dira helburuak lortzeko.



GORRIA

Ahalegin handiagoak eta ekintza osagarriak egin behar dira helburuak lortzeko eta aurreikusitako ekintzak osoki gauzatzeko.

Ilido horretan, hiru planen ebaluazioa modu berean dago egituratuta:

1. Planaren eduki eta orientabide nagusiak.
2. Ekintzen balorazioa. Ezarpen maila.

Gauzatutako ekintzen balorazioa egiteko, koadro sintetiko bat egin dugu. Koadro horretan, planaren egituraren oinarrituta, ebaluatu beharreko arlo bakoitzean epe horretan egindako lorpen nagusiak jaso ditugu, arduradunek aurrera eramandako ekintza nagusiak kontuan hartuta. Gainera, ekintza horiek plana onartu zutenetik 2008ra arte ezarritako helburuen lorpenean duten eraginaren balorazioa ere jaso dugu.



2006-2010 eperako Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal



Planaren edukia

Gobernu Kontseiluak 2006ko urriaren 24an onartu zuen 2006-2010 eperako Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana. Bere helburua herritarrek ingurumena errespetatuz kontsumitzen ikastea da.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak elkarlanean egin dute plan hori. Gainera, ondoko sailek ere parte hartu dute: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; eta, Ogasun eta Administrazio Publiko Sailak.

2002-2020 eperako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak ezarritako filosofia globalaren barruan dago plana. Estrategia horrek, iraunkortasunerantz aurrerapausoak emateko, ezinbestekotzat jotzen du beste politika batzuetan ingurumena kontuan hartzea. Politika horien artean, zehazki kontsumo politika aipatzen du.

Planak hiru helburu estrategiko finkatu ditu: JAKIN, NAHI eta AHAL.

- ▶ **JAKIN:** Lehenengo fasean, beren kontsumo ohiturek dituzten eraginen berri eman behar zaie herritarrei. Beraz, iraunkortasunez kontsumitzen JAKITEKO fasea da.

- ▶ **NAHI:** Herritarrek modu iraunkorragoan kontsumitzeko sentsibilizatzea eta heztea. Iraunkortasunez kontsumitu NAHI izateko fasea da.

- ▶ **AHAL:** Hau da, merkatuan, apurka-apurka, produktu iraunkorragoak eskuratzeko modua izatea. Ondasun eta zerbitzu iraunkorragoak eskuratu AHAL izateko fasea da.








Hauak dira planaren bidez lortu nahi diren emaitzak:

- ▶ Etxeko energia-kontsumoa arrazionalizatzeko ahalegina egitea, energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatuz.
- ▶ Etxeko ur-kontsumoa optimizatzea, baliabide hidrikoak modu eraginkorrean kudeatzen laguntzeko.
- ▶ Herritarren mugikortasun-ohiturak aldatzea, eredu iraunkorragoak ezar ditzaten.
- ▶ Etxeko elikagai eta ondasun kontsumoaren ingurumen-eragina ahalik eta gehien murriztea.
- ▶ Hiri-hondakinen kopurua murriztea eta horiei balio handiagoa ematea.










Ekintzen balorazioa. Ezarpen maila. 2006-2008 aldia








Jarraian, onartu zenetik 2008ko abendura arte egindako aurrerapauso nagusiak agertzen dira.




JAKIN KONTSUMITZAILEEK JAKIN DEZATELA			
BANAKOEN JARDUERAK (B)		2006-2008an egindako ekintzak	
B-2	Energia aurrezteko eta energia berriztagarriak zein energia iraunkorrenak erabiltzeko herritarrei begira egiten diren informazio eta kontzientziazio kanpainetan sakontzea. Sentsibilizazio kanpaina berriak eta hobeak diseinatzea eta abian jartzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Irratian, aurrezteko aholkuak emateko eta energia berriztagarriak ezagutarazteko eguneroko kanpaina; prentsan, aholku-binetak eta meteoberokuntza. ✓ «Energía Bizi» erakusketa ibiltaria, ikastetxeei hitzaldiak ematea barne. ✓ EEEren web orrian ikasgela didaktikoa sortzea. Jardunaldi teknikoak eta energia aurrezpenari zein energia berriztagarriari buruzko hitzaldiak. 	
B-3	«Etxeko hondakinekin zer egin badakizu» kanpaina. Egoitza sektoreko hondakinak deuseztatzeari buruzko informazioa.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxeko hondakinak ongi kudeatzeko gidaliburua egitea, Nazio Batuen Erakundearen Global Action Plan (GAP) programari jarraiki egindako sentsibilizazio giden barruan. Euskal Autonomia Erkidegoko 22.000 familiak hartu dute parte. 	
B-4	Produktuen derrigorrezko etiketatzeari buruzko informazioa liburuxka eta web orrietan ematea. Bertan, etiketatze ekologikoari buruzko informazioa ere badago.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen gida banatzea. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen gida elektronikoki kaleratzea, Kontsumo eta Industria Segurtasunerako Zuzendaritzaren webgunean.</i> ✓ EEEren etxeko energia aurrezteari buruzko liburuxka kontsumo eragileen artean banatzea. 	
B-5	Landa ingurua informazioaren gizartean sartzeko teknologia eta azpiegitura berriak garatzea, mugikortasun beharrak murrizteko.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak 2005ean amaitu zuen plana garatzen. Telekomunikazio azpiegituren hedapena Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzak hartu du bere gain ✓ I+G+b bultzatzeko programaren barruan, informazioaren gizartearekin lotutako proiektuak egitea sustatzen da. 	
B-9	Ingurumenarekin iraunkorra den kontsumoari buruz sentsibilizatzeko programa integrala Euskadiko hezkuntza komunitate osoan: «Denak bat-lrakaskuntza».	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hasi gabe 	
B-10	Energia kontsumo iraunkorrari buruzko heziketa programa.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ ENERGIA. ERAGINKORRA ETA BERRIZTAGARRIA materiala lantzea eta banatzea, EEEekin elkarlanean. ✓ Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta EEEK Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan eguzki-plakak instalatzea. 	
B-11	Hezkuntzako jardueretan eta programetan kontsumo iraunkorrerako irizpideak sartzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikastetxe publiko ez-unibertsitario guztietan hondakin arriskutsuak biltzeko programa bat martxan jartzea. Materiala arduraz eta modu iraunkorrean kudeatzea. ✓ <i>Ingurumenarekin arduratsua den kontsumitzailea gida banatzea</i> 	




NAHI KONTSUMITZAILEAK NAHI IZATEA









BANAKOEN JARDUERAK (B)		2006-2008an egindako ekintzak	
B-12	Landa inguruan hondakinak murrizteko sentsibilizazio kanpaina sortzea eta abian jartzea.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Interesdun guztiei ustiapenatarako higiene jardunbide egokien gidak egiten eta banatzen ari gara. Esnetarako behiak dituzten ustiategietarako eta oilo-erruleak dituzten ustiategietarako gidak banatuta daude dagoeneko. Bestetik, esnetarako ardiak dituzten ustiategietarako eta haragitarako behiak dituzten ustiategietarako gidak prestatzen ari gara. Gida horietan, hondakinak murrizteari lotutako gaiak ere jorratu ditugu. 	
B-13	Landa inguruan ura aurrezteko eta neurritz kontsumitzeko neurriak sortzea eta zabaltzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hasi gabe 	
B-14	Baliabide naturalak zaintzeko, sentsibilizazioa eta basogintzako eta arrantzako jardunbide egokiak bultzatzeko programa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Basogintzako jardunbide egokiak: Basoak modu iraunkorrean kudeatzeari eta horren garrantziari buruzko bi unitate didaktiko landu ditugu ✓ Dibertimenduzko itsas arrantza iraunkorrari buruzko jardunaldiak antolatzea; ingurumena oso aintzat hartzen duten proiektuak bultzatzea eta diruz laguntzea; adibidez, besteak beste, eraikuntza berriak egitea helburu daukatenak (itsasontzi zaharrak baxan emanez, energia gutxiago gastatzen duten itsasontzi berriak eraikitzen dira) edo Pasaia San Pedroko eta Hondarribiko kofradietan eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezartzeko helburua daukatenak. 	
B-15	Kontsumitzaileentzako 133 hezkuntza tailer zabaltzea eta kontsumo iraunkorrari buruzko tailer berriak sortzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontsumitzaileak hezteko 133 tailerren berri ematea. ✓ 14 urteik gorako taldeei tailerrak ematea ✓ Helduei tailerrak ematea ✓ Lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan tailerrak ematea 	
B-18	Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak kaleratzen dituen argitalpenetan eta informazio-orrietan gero eta paper birziklatu gehiago erabiltzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Liburuxkak egiteko paper birziklatua erabiltzea 	
B-19	Administrazioko sailen eta zuzendaritzen jardueretan baliabideak eta instalazioak zentzuz erabiltzeko irizpideak sortzea eta martxan jartzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 33 lanbide heziketa zentrotan EKOSCAN egitea. Hamabost lanbide heziketa zentrotan EKOSCAN ziurtatzea. FAKULTATEAK ✓ Ondoko lekuetan egin dugu Ekoscan (Diagnostikoa gehi Ekintza Plana): Eusko Jaurlaritzaren 7 egoitzatan, foru aldundien 8 egoitzatan, 32 udaletxetan, 19 heziketa zentrotan eta 20 osasun-etxetan. Ondoko lekuetan egin dugu Ekoscan egiaztapena: Eusko Jaurlaritzaren 7 egoitzatan, foru aldundien egoitza 1ean, 4 udaletxetan, 7 heziketa zentrotan eta 6 osasun etxetan. 	
B-20	Erosketa publiko berderako sistema bat garatzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eusko Jaurlaritzaren erosketa eta kontratazioetan ingurumen irizpideak kontuan hartzeko proiektua abian dago (Ogasuna-Zerbitzu Orokorrak Sailarekin, hiru foru aldundiekin eta udalekin elkarlanean, Udalsarea 21en barruan). 	

B-22	Hezkuntza Sailaren kontsumo iraunkorrerako ekintzen barne plana	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak paper birziklatua erabiltzeari buruz zuzenean emandako jarraibideak. Energia aurrezteko, Eraikuntzako Kode Teknikoa ezatzea: beheko solairua altxatzea. Beira bikoitzak jartzea. Aurrealdeak eta ganberak aireberritzea. 	
B-23	Kontsumo iraunkorrari buruzko sentsibilizazio eta barne-informazio programa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikastetxeetara kontsumoari buruzko jardunbide egokien gidaliburua bidaltzea. 	
EKINTZA KOLEKTIBOAK (K)		2006-2008an egindako ekintzak	
K-1	«Denak-bat» sentsibilizazio eta informazio programa. Informazioarekin lotutako jarduera bateratuak edo kolektiboak biltzea.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hasi gabe 	
K-8	Kontsumo iraunkorrari buruzko heziketa eta trebakuntza programak	<p>Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak aurrerapausoak eman ditu honetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ INGURUGELLEN bidez Eskola Agenda 21 aplikatzea, ikastetxeen iraunkortasun prozesuari garrantzia emanez. Horretarako, kudeaketa iraunkorra egitea eta ikastetxeko komunitate osoak parte hartzea bultzatzen da. Unesco katedra ✓ Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak <i>IRAUNTXOAK</i> bideo-jokoa kaleratzea (energia aurrezpena eta kontsumo iraunkorra sustatzeko) eta Eskola Agenda 21en parte hartzen duten ikasleen artean 10.000 ale banatzea. 	
K-6	<i>Kontsumitzaile arduratsua izateko gida</i>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontsumitzaile arduratsua izateko gidaliburua egitea, Nazio Batuen Erakundearen Global Action Plan (GAP) programari jarraiki egindako sentsibilizazio giden barruan. Euskal Autonomia Erkidegoko 22.000 familiak hartu dute parte. 	
Z-7	<i>Youth for change gida argitaratzea</i> , gazteen artean kontsumo arduratsua kontzeptua zabaltzeko.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontsumo eta Ingurumen sailek elkarlanean kaleratutako argitalpena; Ingurumen Esparru Programa saila - 5.000 ale. Udalerrietan, elkarteetan, ikastetxeetan, etab. banatua. 	
EKINTZA KOLEKTIBOAK (K)		2006-2008an egindako ekintzak	
K-16	Ereduzko barne kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hasieran, esku hartzen duten eragile guztientzako ingurumen irizpide baliagarriak definitzea aurreikusten zen arren, horri lotutako banakako ekintzak abiatu dira, baina ekintza kolektiboa ez. ✓ Ihoberen eta Uraren Euskal Agentziaren (Ura) egoitza berriko bulego-altzarietarako ingurumen irizpideen plegua. ✓ Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren eta Bizkaia Plaza eraikinaren (Bilbo-Eusko Jaurlaritza) ISO 14001 ziurtagiriak. ✓ Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak sail horretako erosketetan ingurumen baldintzak kontuan hartzeko emandako agindua. ✓ Ihoberen Mugikortasun Iraunkorrerako Plana eta Arabako Teknologia Parkea. 	

ZEHARKAKO JARDUERAK (Z)		2006-2008an egindako ekintzak	
Z-17	Administrazioko teknikarientzat eta zuzendarientzat trebakuntza eta sentsibilizazioa, kontsumo iraunkorraren gaian ardurak partekatzeke	<ul style="list-style-type: none"> ✓ HEISeko zuzendariei kontsumorako jardunbide egokien gidaliburua bidaltzea. ✓ Udalerrii iraunkortasun arloan trebatzeko modulu bat ematea, HAEErekin elkarlanean: Lurzoruaren Kutsadura Prebenitzeko eta Zuzentzeko 1/2005 Legeak udaletan duen eraginari buruzkoa. 	
Z-21	Energiaren alorrean sailen artean ekintzak koordinatzea eta dinamizatzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eusko Jaurlaritzak Flexible Fuel Vehiculesen (FFV) erosketari koordinatzea. ✓ Etxebizitza Sailarekin elkarlanean aritzea, sustapen publikoko etxebizitzaren egiaztapenerako. 	
Z-24	Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Ihoberen arteko koordinazioa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Udalsarea 21ekin elkarlanean aritzea, Klima Aldaketa ekitaldean, baita egiten ari garen hainbat ingurumen planetan ere: 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programa eta Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana, adibidez. 	



AHAL KONTSUMITZAILEEK AHAL IZATEA

BANAKOEN JARDUERAK (B)		2006-2008an egindako ekintzak	
B-28	Produktu ekologikoen eta kalitatezkoen ziurtapena egitea sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko kanpainak egitea eta Euskadiko Aholku Batzordea sortzea. 	
B-29	Basogintzako ziurtagiri iraunkorra garatzea eta babestea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko basozainen konfederazioarekin lankidetzaren hitzarmena, baso-lurren jabeek basoak modu iraunkorren kudea ditzaten eta ziurtapena sustatzeko ekintzak gara daitezten. 	
B-30	Ekodiseinurako tresna teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 2006an, 505 zerbitzu kudeatu ditugu 2004-2006 eperako Ekodiseinua Sustatzeko Programaren barruan, honako ataletan banatuta: Informazio zerbitzuak (450), orientazio zerbitzuak (15), ekintza laguntzeko zerbitzuak (26) eta aintzatespen zerbitzuak (14). ✓ Nabarmentzekoak dira Ekodiseinu Ikasgelen beka, "produktu iraunkorragoa" zerbitzua eta "UNE 150.301 Ekodiseinu Araua ezartzeko eta egiaztatzeko" zerbitzua.. 	
B-36	Ekoizpen eta kontsumo iraunkorrerako estrategia integratua ezartzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 2007-2010 eperako IEPn, programa berriaren lau lehentasunetako bat da.. 	
B-37	Jarduerako sektore guztien input-output taulak egitea, kontsumoak sortzen dituen eraginei lehenetsua emateko	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lanaren lehenengo fasearen ardatza energia fluxuak eta CO2 isurketak aztertzea izan da, produktuen balio-ziklo osoari lotuta. Horretarako, input-output analisi teknika erabili ditugu eta, horri esker, euskal ekonomiako sektore guztien ingurumen eragina zehaztu ahal izan dugu, CO2 isuriei eta energia kontsumoari dagokienez. 	
B-31	Merkataritzako banaketa-kate handiekin lankidetzaren hitzarmenak sinatzea, kontsumo iraunkorra sustatzeko	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lehenengo harremanak. 	
B-35	Eraikin berrietan energia berriztagarriak modu eraginkorren sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ EEEK eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak diru-laguntzak ematen dituzte energia berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioetarako. ✓ Estatuan Eraikuntzako Kode Teknikoa ezartzea. 	
B-35	Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Hondakinak Murrizteko eta Kudeatzeko Plana	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Planaren lehenengo zirriborroa aztergai jarri dugu 	

EKINTZA KOLEKTIBOAK (K)		2006-2008an egindako ekintzak	
K-25	Produktuak egiaztatzeko programa (hausnarketa globala)	✓ Hasi gabe	
K-32	Kontsumo iraunkorra sustatzeko tresna ekonomikoak, erregulatzailerak eta arautzaileak garatzeko eta martxan jartzeko programa	✓ Hasi gabe	
ZEHARKAKO JARDUERAK (Z)		2006-2008an egindako ekintzak	
Z-26	Etxebizitzen eta Eraikinen Energia Ziurtagiriaren Eskema	✓ 37 eraikin behin-behinekoz egiaztatu ditugu (33 eraikin bizilekuak dira eta 2.589 etxebizitza dituzte; beste laurak, berriz, ez dira bizilekuak) eta 35 behin betiko (26 eraikin bizilekuak dira eta 1.791 etxebizitza dituzte; beste bederatiak, berriz, ez dira bizilekuak)	
Z-27	Administrazioaren instalazio berrietarako eraikuntza iraunkorrari buruzko irizpideak garatzea	<p>✓ 2006an, beste herrialde batzuetan eraikin administratiboetan ingurumen irizpideak integratzeko garatu dituzten sistemen eta esperientzien identifikazio teknikoak egiteko lanak hasi genituen.</p> <p>✓ Era berean, Ekodiseinu Ikasgelen barruan, altzariei, bulego-materialei eta instalazioei lotutako ingurumen irizpideak definitzeko proiektuak garatu ditugu. Elementu horiek alderdi arkitektonikoaren osagarriak dira.</p>	







2007-2012 eperako Euskal Autonomia Erkidegoko



Planaren edukia

Gobernu Kontseiluak 2007ko abenduaren 26an onartu zuen 2007-2012 eperako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Kutsatuen Planak honako hauetan du oinarria: 2002-2020 eperako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian eta 2002-2006 eperako Ingurumen Esparru Programaren helburu eta xedeetan. Gainera, Euskadiko Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen agindua da.

Planak lau helburu estrategiko zehaztu ditu:

- ▶ **1. helburua** . Lurzorua kalitatea okertzea **SAIHESTEA**, 1/2005 Legeak duen indar eragileari garrantzia emanez.
- ▶ **2. helburua**. Lurzoru kutsatuen **BERRESKURAPEN ARRAZIONALA SUSTATZEA**.
- ▶ **3. helburua**. Hutsik dauden eta kalitatea galdu duten lurzuoruak kutsadura eragiteko arriskua sortzen duten jarduerak kokatzeko **BERRERABILTZEA**.
- ▶ **4. helburua** . Lurzoruei **BALIOA EMATEA**, balio erantsi handiko erabilera ez-kutsatzaile berriak esleituz

... Horiek hiru programaren bidez jartzen dira martxan:

1 PROGRAMA. EZAGUTU.

Programa horren helburua «ezagutzaren kudeaketari» zuzenduta dago, zentzu zabalean. Jarduera ildo eta ekintza zehatzak hartzen ditu kontuan, ondoko inguruan: lehenik, EAeko lurzoruen kalitatearen inguruko informazioa lortzea, eguneratzea eta kudeatzea; bigarrenik, jakintza tekniko eta zientifikoa sortzea; eta azkenik, jakintza hori sentsibilizazio, informazio eta heziketa programen bidez zabaltzea.

2 PROGRAMA. ERAGIN.

Bigarren programa horrek diseinuan hobekuntzak egitea eta araudia ezartzea du helburu, baita politiken integrazio handiagoa bilatzea ere.




3 PROGRAMA. EKIN.

EKIN programan, lau helburu estrategikoak lortzen laguntzen duten ekintza guztiak agertzen dira: saihestu, berreskuratu, berrerabili eta balioa eman.





Ekintzen balorazioa. Ezarpen maila

Jarraian, onartu zenetik 2008ko abendura arte egindako aurrerapauso nagusiak agertzen dira.

EZAGUTU PROGRAMA		
HELBURUAK	GAUZATUTAKO EKINTZAK	
<p>1. JI Lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa biltzea, antolatzea eta kudeatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lurzoruen kalitateari buruzko informazio sistema eguneratzeko prozesua abian jarri dugu. Analisia 2007an egin genuen eta, emaitza gisa, erabilera gehiagotarako aukera ematen duen sistema eskuragarriago bat izango dugu. ✓ Gainera, lurzoruaren kalitate-deklarazioa egiteko prozedura kudeatzeko sistema informatikoa hobetzen jarraitu dugu. Sistema horrek Ingurumen Sailburuordetzako teknikariei eta lhobeko teknikariei informazio eguneratua izateko aukera ematen die, baita egiteke dauden ekintzak kontrolatzeko ere. ✓ Bukatutzat eman dugu lurzoria kutsatzeko arriskua eragiten duten jarduerak kokatuta dauden lekuen zerrenda eguneratzeko prozesua. ✓ Inbentarioko geruza grafikoa web formatuan argitaratu dugu, lehenengo aldiz. Inbentario hori arautzen duen dekretuak (2008ko irailean onartua) hala agintzen duelako argitaratu dugu. 	
<p>2. JI Jakintza sortzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ BERRILUR ikerketa taldeari buruzko informazioa: ETORTEK (BERRILUR III) proiektu proposamena egitea, plan horren helburuekin bat eginez. Halaber, Industria Sailak eta Ingurumen Sailak BERRILUR II proiektua diruz lagundu dute. Proiektu horren xedea, hainbat lekutako (meatzeak, nekazaritza, garraioa, etab.) lurzoruaren osasuna aztertzea da. ✓ Lurzoru kutsatuei buruzko politika ezartzeko gidak eta gidalerro teknikoak sortzea. ✓ Lurzoru kutsatuei buruzko ezagutza espezifikoak duten sareetan modu aktiboan eta jarraian parte hartzea; adibidez: Common Forum-ean, NICOLEn edo Ingurumen Agentzien Sarean. ✓ Era berean, OVAMekin (Flandesko Ingurumen Agentzia) lankidetzan ari gara, Europako hainbat herrialdeetako lurzoru kutsatuen alorreko jardunbide egokienak identifikatzeko proiektu batean. 	
<p>3. JI Sentsibilizazioa, informazioa eta heziketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 2008an aurrera eramandako ekintzak ez dira sistematikoak izan eta ez dira estrategia zehatz bati jarraiki egin. Aitzitik, azken urteetako joerarekin jarraitu dute; hau da, sentsibilizazioa, informazioa eta heziketa beste esparru batzuetan (adibidez, enpresak edo tokiko erakundeak) antolatutako ekintzetan parte hartzera mugatu dira. ✓ Berrikuntza proiektu bati esker, lurzoru kutsatuen kudeaketan erabakiak hartzeko jarraibide orokorren zirriborroa egiteko aukera izan dugu. Jarraibide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko errealitateko alderdi esanguratsuenetan sakontzeko erabiliko dira 	





ERAGIN PROGRAMA

HELBURUAK	GAUZATUTAKO EKINTZAK	
<p>4. JI Ingurumen organoaren jarduera optimizatzea eta lurzoru kutsatuen inguruko araudia aplikatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioa arautzeko dekretua onartzea (165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen zerrendari buruzkoa). ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruen Kutsadura Prebenitzeko eta Zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko zenbait aldaketa izapidetu ditugu, batez ere lurzoruen kalitatea deklaratzeko prozedura sinplifikatzeko, eta nahiko aurreratuta daude. ✓ 1. Jlan aipatu dugun bezala, deklarazio prozedura kudeatzeko sistema informatikoan egindako aurrerapausoa oso esanguratsua izan da. Sistema horrek jarduera ildo honetako helburuak lortzen laguntzen du. ✓ Abenduaren 10eko 199/2006 Dekretua aplikatzeari esker, 2008an lanak egiteko baimendutako erakundeak 40 izatera iritsi dira. ✓ Lurzoruen kalitatea deklaratzeko prozedurari erantzuteko epea nabarmen hobetu da; batetik, Ingurumen Sailburuordetzan teknikari gehiago daudelako zeregin horretan eta, bestetik, laguntza teknikoak erabili direlako eta prozedurari euskarria ematen dion dokumentazioa gero eta uniformeagoa delako. 	
<p>5. JI Administrazio mailen artean lankidetzaren baldintza egokiak sortzea, lurzoru kutsatuetan lehenago esku hartzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hainbat erabileratarako lurzoruak kudeatzeko ardura duten administrazioekin elkarlanean aritzea: Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta ETORLUR-ekin. Era berean, SPRILUR-ekin lan bateratua formalizatu eta abiatu dugu eta Nekazaritza Sailarekin harremanetan hasi gara. ✓ Gainera, zenbait elkarte kudeatzaileekin (adibidez, Bilboko Zorrotzaurre eta Pasaiaiko Jaizkibia) harreman estua izaten jarraitzen dugu. ✓ Tokiko erakundeei ikerketak egiteko eta lurzoru kutsatuak berreskuratzeko diru-laguntzak ematen jarraitu dugu. Lurzoru kutsatuetarako diru hornidura hiru milioi eurokoa da. 	




EKIN PROGRAMA

HELBURUAK	GAUZATUTAKO EKINTZAK	
<p>6. JI Beste lurzoru batzuk kutsatzea SAIHESTEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 1/2005 Legea eta otsailaren 14ko 9/2005 Dekretua betetzeko eskatzen diren egoerari buruzko aurretiatzko txosten asko baloratzea. Zailtasun handiena zera izan da: 4.000tik gora txostenetatik jasotako datu kopuru izugarria kudeatzea. Neurri prebentiboei buruzko gida bat argitaratzea, aurretik aipatu bezala, baina ✓ jarduera ildo honetan eragina duena. 	
<p>7. JI Lurzoru kutsatuak BERRESKURATZEKO irtenbideak bilatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lurzoru kutsatuak kudeatzeko zentro bat sortzeko proiektua bultzatzea: Ihebeko Administrazio Kontseiluak berretsi behar du. Halaber, azpiegituraren bultzatzaile izateko erakunde publiko bat sortzeko izapideak hasi ditugu eta proiektuan bazkide pribatuak sartzeko plegua prestatu dugu. ✓ Gainera, Loiuko eta Argalarioko segurtasun-biltegiak mantentzen jarraitu dugu, arlo horri buruzko ebazpenei jarraiki. ✓ Finantzazio tresnen ardatza lurzoru kutsatuak berreskuratzeko funts publiko-pribatu bat sortzeko lehenengo urratsak egitea izan da. Zaborteigira gauzak botatzearen truke tasak ezartzea izan da baloratutako beste tresna ekonomikoetako bat. Elementu horrek lurzoru kutsatuak berreskuratzeko beste teknika batzuk erabiltzea susta dezakeela uste dugu. ✓ Gainera, 1/2005 Legea indarrean sartu aurretik eraikitako industrialdeak ikertzeko proiektuarekin aurrera jarraitu dugu. Plan horren bidez finantzatuta dago proiektua. ✓ Beste proiektu esanguratsuetako bat hauxe izan da: hondakin isuri jakin batzuk lurzorua ukitzea beharrezkoa duten aplikazioetarako berrerabiltzea; alegia, proposamen tekniko bat egitea, etorkizunean hondakinak erabiltzen direnean (adibidez: errepideak eraikitzeko) lurzorua babestuta egoteko araudi bat egiteko. 	
<p>8. JI Baztertutako eta narriatutako lekua BERRERABILTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jarduera ildo horretan egin dugu aurrerapenik txikienetakoa 2008an. Ildo horretako proiektuak 2009ra atzeratzera erabaki dugu. Proiektu berritzaileen pleguko lehentasunezko gaia hauxe izan da: ikerketetan, hirigintza lurzoru kutsatuak berreskuratzeko motortzat hartuta, lurzoru horiei ahalik eta etekin handiena ateratzea. 	
<p>9. JI Hirigintza jarduerarik aurreikusita ez daukaten eta kutsatuta egoteko arriskua daukaten lurzoruen kudeaketa. BALIOA EMATEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jarduera ildo hau bi kokaleku motatara zuzenduta dago: hondakin industrialen zaborteigian abandonatuetara eta eremu sentikorretan kokatuta dauden eta kutsatuta egoteko arriskua duten kokalekuetara. Esparru horretako jarduerak gogoeta txiki batzuetara mugatu dira. Jarduera esanguratsuenak abian jartzeko baldintza gisa, datorren urtean inbentario eguneratua eskura eduki ahal izatea jarri dugu. 	





2008-2012 eperako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana



Planaren edukia

Eusko Jaurlaritzak 2007ko abenduan onartu zuen Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana. Plan horren lehentasunezko helburua 2012an CO2 isurketak + % 14 murriztea da, 1990eko mailekiko.

Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planaren helburua honako hau da: 2020an EAEn karbonoaren menpe ez dagoen eredu sozio-ekonomikoa nagusitu dadin pausoak ematea eta klima aldaketarekiko daukagun urrakortasuna gutxitzea.

Horretarako, BI LEHENTASUN zehaztu ditu: bata, etorkizuna ziurtatzeko, klima aldaketari kontra egitea eta bere ondorioetarako prestatzea; eta, bestea, berrikuntzaren kultura sustatuz, euskal ekonomia iraunkorrerantz aurrera egitea, ekoizpen eta kontsumo garbia oinarri hartuta (karbonoarekiko mendekotasunik gabea). Abiapuntu hori hartuta, Planak 4 HELBURU ESTRATEGIKO zehazten ditu:

1 Helburu estrategikoa : BEG isurpenak 1990. urtearekiko (oinarri urtea) + % 14ra mugatzea.

2 Helburu estrategikoa: Karbono hustutegien husteko gaitasuna % 1 handitzea, oinarri urtearen aldean. Batik bat, basoen, nekazaritza-lurren eta larreen kudeaketan jardunda.

3 Helburu estrategikoa: Baliabide naturalen gaineko arriskuak minimizatzea. Izan ere, itxuraz, inpaktu nagusiak bioaniztasuna eta ekosistemen osasuna galtzearekin lotuta egongo dira, baita baliabide hidrikoen eta edafikoaren kalitatea galtzearekin ere.

4 Helburu estrategikoa: Pertsonen osasunerako, hirietako habitataren kalitaterako eta sistema sozioekonomikoetarako egon litezkeen arriskuak minimizatzea. Hala, azpiegitura energetikoen, kostakoen eta garraio alorrekoen integritatea bermatuko da, osasun zerbitzuak egokiak izango dira, lehendabiziko sektoreari lotutako produktibitateari eutsi egingo zaio edo hobetu egingo da, edota klima egoera berriarekin bateragarriak izango diren hiri-eredu berriak garatuko dira.



Helburu horiek lortzeko bidean, 120 neurri zehaztu ditugu, eta neurri horiek, era berean, lau ekintza programatan banatuta daude:




- **1 Programa. Karbono gutxiago isurtzea.** «Karbono gutxiago eta energia garbiagoak erabilia ekoiztea eta kontsumitzea, eta hustutegiak kudeatzea».
- **2 Programa. Aurrea hartzea.** «Klima aldaketari aurrea hartzea, ekosistema naturalak zaintzeko, giza osasuna babesteko eta azpiegitura zein sistema sozioekonomikoak egokitzeko».
- **3 Programa. Ezagutzea.** «Natura behatzea, arazoak ezagutzea eta konponbideak aurkitzea».
- **4 Programa. Herritarrak eta administrazioa.** «Herritarrak mugiaraztea, administrazioaren nagusitasuna eta ereduzko jarduera aintzat hartuta».




Ekintzen balorazioa. Ezarpen maila

Jarraian, onartu zenetik 2008ko abendura arte egindako aurrerapauso nagusiak agertzen dira.



1 PROGRAMA : KARBONO GUTXIAGO			
Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak	
Energia	<p>Argindarraren sorkuntza eraginkorra</p> <p>EAEko ekoizpen termoelektriko osoa gas naturalaren bidezko ziklo konbinatuarekin sortzera iristea.</p> <p>Gainera, hornidura elektrikoaren % 14 baterako sorkuntzaren bidez lortzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ziklo konbinatuko zentral berri bat instalatzeko prozesua hasi da (Lantaronen), argindar sorkuntza eraginkorragoa bultzatzeko eta isurpen gutxiago egiteko. Baterako sorkuntza sustatzeko tresnak garatu ditugu: ✓ industriakoak ez diren instalazioen bideragarritasuna aztertzeke eta daudenak optimizatzeko laguntzak. 	
	<p>Energia berriztagarriak sustatzea</p> <p>Energia berriztagarriek 2010ean argindar eskariaren % 15 asetzea lortzea: haize-energiaren ahalmena garatzea eta instalatutako potentziaren zifra bost aldiz handitzea.</p> <p>Eguzki-energia biomasa eta oraindik garatzen ari diren beste iturri batzuk erabiltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haize-energiarako 200 MW parke eta miniparke esleitu dira. ✓ Biomasa galdarak instalatzeko eta saretik isolatutako instalazio fotovoltaikoetarako diru-laguntzak eman ditugu. ✓ Mutrikuko olatu-energia bidezko plantaren eraikuntzan aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu. 	
Industria	<p>Energia aurrezte eta eraginkortasunez erabiltzea</p> <p>2010ean 583 ktpb aurrezte, 2001ekin alderatuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Energia eraginkortasuna laguntzeko programak, trebakuntza ikastaroak eta industrian energia eraginkortasuna sustatzeko energia ikuskaritzak egitea. ✓ BEGak erregistratzeko eta murrizteko sistema bat prestatzea industriako sektore ez-arautuetarako. ✓ Energia Kontsumitzen duten Produktuen Zuzentarauari buruzko gidak egin ditugu eta European erreferentziakoak dira. ✓ Prozesu industrialetan erregai alternatiboen erabilera sustatzea: hondakin uren araztegiko baterako sorkuntzarako lohiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan; egur hondakinak paper-ore enpresetan; erabili gabe geratu diren pneumatikoak zementu fabriketan. 	
	<p>Energiarekin zerikusirik ez duten BEG isurketen murrizketa</p> <p>Industriako ekoizpen prozesuekin lotutako BEG isurketak murriztea. Horien artean, gas fluoratuek aparteko garrantzia daukate: 2012an, isurketak % 89 murriztea, 2005ekoekin alderatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 2008-2011 eperako Hondakin Ez-arriskutsuen Plana egitea, lehengaien ordeztu gutxi daukaten bigarren mailako lehengaiak (zepa zuriak) erabiltzea bultzatzeko ekintza zehatzak aurreikusita. ✓ Lehengaien ordeztu, bigarren mailako lehengaiak erabiltzea bultzatu dugu: altzairu ekoizpeneko finketa hondakinak labeen berriz sartzeko, kare lehengaiaren ordeztu gisa eta beroa aprobetxatuz, labetik bero ateratzen baitira. 	



Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak	
Garraioak	<p>Energia aurrezte eta eraginkortasunez erabiltzea</p> <p>2012rako garraioaren eraginkortasuna hobetzea, CO2 isurketei dagokienez, 2005eko kopurua % 21 murriztuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gasteizko tranbia martxan jartzea. ✓ EAEko bizikleta bideen LPSa egiten ari gara une honetan. ✓ Era berean, <i>Short Sea Shipping</i> itsas zerbitzua martxan jarri dugu. 	
	<p>Garraioan energia berriztagarrien erabilera sustatzea</p> <p>Bioerregaien eskaintza sustatzea, 2010ean energia berriztagarrien kontsumoa 177 ktpb-koa izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zerbitzuguneetan bioerregai hornigailuak instalatzeko diru-laguntzak eman ditugu. 	
Egoitzak eta zerbitzuak	<p>Energia aurrezte eta eraginkortasunez erabiltzea</p> <p>2010ean, egoitza sektorean eta hirugarren sektorean 58 ktpb murriztea, 2001ekin alderatuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxebizitzan iraunkortasuna egiaztatzen araudia garatu dugu, energia eraginkortasuna barne hartuta. ✓ <i>Eraikuntza iraunkorraren</i> gida berrikusita argitaratu dugu. ✓ Eraikuntzako Kode Teknikoa kontrolatzeko eta aplikatzeko trebakuntza ikastaroak egin ditugu. ✓ Energia eraginkortasun handiagoko etxe tresna elektrikoak erabiltzeko neurriak bultzatu ditugu. ✓ Erosketa publiko berderako gida bat egin dugu material birziklatuak erabiltzea sustatzeko; batez ere, eraikuntza eta eraisketetako hondakinetatik ateratako agregakinak. 	
	<p>Egoitza sektorean energia berriztagarrien erabilera sustatzea</p> <p>Etxebizitzetan eta eraikinetan energia berriztagarriak ezartzea sustatzea; adibidez, eguzki-energia termikoa eta biomasa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eguzki-energia termikoko instalazioak eta biomasa galdarak ezartzeko diru-laguntzak eman ditugu. 	
Nekazaritza eta basogintza lotutakoa	<p>Energia berriztagarriak sustatzea</p> <p>Nekazaritzako eta abeltzaintzako biomasa erregai gisa erabiltzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Egur manufakturatik ateratako biomasa (pelletak) erabiltzeko neurriak hartzen ari gara. Horretarako, pelletak erregai gisa erabiltzeko aukera ematen duten galdarak instalatzeko <i>ad hoc</i> laguntza-lerroak daude. 	
	<p>Energiarekin zerikusirik ez duten BEG isurketen murrizketa</p> <p>Abeltzaintza intentsiboak sortzen duen metanoa murriztea, horren energia hondakinak kudeatzeko plantetan erabiliz eta, hala, urtean 120.000 tm BEG murriztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Araban eta Gipuzkoan kudeaketa ereduak definitzeko lanean ari gara, baita Karrantzako minda planta martxan jartzea sustatzen ere. 	
	<p>Karbono hustutegiaren kudeaketa</p> <p>Gaur egungo karbono hustutegiei eustea eta karbono xurgapena handitzea; zehazki, oinarri urteko isurketen % 1 xurgatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lurzoruan dagoen karbono organikoaren jarraipena egiten ari gara ✓ Publizitate kanpainak egin dira egurra eraikuntzarako material gisa erabiltzeko. ✓ Karbono xurgapena handitzen duten ekintzak diruz laguntzeko lerroak martxan 	

Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak	
<p>Hondakinen kudeaketa</p>	<p>Energiarekin zerikusirik ez duten BEG isurketen murrizketa</p> <p>2012an, hiri hondakinen (HH) <i>per capita</i> sorkuntza 539 kg/urteko zifran egonkortzea.</p> <p>Hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko programak diseinatzea, zabortegetan hiri hondakinen % 40 baino gutxiago deusez daitezten.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Plangintza alorrean sustapena egitea, ondokoen bidez: Hiru lurralde historikoetan mankomunitatekako edo kuadrilakako bilketak eginez, ✓ Sentsibilizazio estrategia koordinatua egitea: Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek EAEn kanpaina koordinatua egitea, birziklatzea hobetzeko, hondakin gutxiago sortzeko eta sentsibilizatzea sustatzeko. Hainbat kanpaina egitea herrietan, eskualdeetan eta lurraldean. ✓ Prebentzio programa bateratua diseinatzea eta ezartzea: kontratazio publikoan ingurumen irizpideak barne hartzea eta enpresek ontzi gutxiago erabiltzeko planak egitea. ✓ Tratamendu azpiegiturak sustatzea: Konpostaje-plantak; Gipuzkoan, materia organiko konpostagarrien gaikako bilketa egiteko edukiontzi espezifikoak proba moduan ezartzea; hiru lurralde historikoetako hainbat eremutan etxeko konpostajea martxan jartzea, informazio kanpainak eginez, ikastaroak emanez eta konpostatzaileak banatuz; tamaina handiko hondakinak tratatzeko planta; etxeko tresna elektrikoak konpondu eta berrerabiltzeko planta; Araban, masan bildutako hiri hondakinen tratamendu mekaniko biologikoa egiteko planta eraikitzea eta martxan jartzea. ✓ Ahalik eta biogas gehiena biltzea: EAeko HH zabortegetan biogasa biltzea. 2007an, 25.809 Mwh energia elektriko gordin sortu genituen. 	




2 PROGRAMA: AURRE HARTZEA

Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak	
Sistema naturalak	<p>Sistematikoki behatzea eta ikastea Klima aldaketak sistema naturaletan sortutako ondorioak ikustea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Mareografo eta estazio ozeanografiko sare bat daukagu. Zehazki, denbora errealean lanean ari diren bost mareografo daude martxan eta, une honetan, Bermeon seigarrena ezartzen ari gara. Gainera, itsas zabalean bi buila daude. ✓ Klima aldaketa sistema naturaletan sortzen ari den ondorioei buruzko ezagupena handitzeko lan-lerroak jorratu ditugu: Urdaibai inguruan, Goi-Pleistozenoko paleoklimatologiari eta paleobiodibertsitateari buruzko azterketa bat egin dugu; landareak klima aldaketaren ondorioetara fisiologikoki nola egokitu diren aztertu dugu, ingurumeneko beste estres batzuekin alderatuta; klimak mendietako artzaintzan sortzen dituen ondorioak eta artzaintzako espezieak nola egokitu diren aztertu dugu; eta abar. ✓ Lurzoruaren emankortasun goiztiarrari eta kalitateari buruzko alerta-adierazleen sistema bat garatzen 	
	<p>Irizpideak definitzea eta plangintza egitea Baliabide naturalen eta antolamendu tresnen plangintza egiteko jarraibideak eguneratzea, klima aldaketara egokitzeko gogoetak kontuan hartuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ EAEko ibaien eta erreken LPSren edukiak berrikusten ari gara. 	
	<p>Baliabideak egokitzea eta erabilgarritasuna bultzatzea Sistema naturaletako elementuen osotasuna indartzea. Klima aldaketak EAEko ekosistema kalteberenetan sortzen dituen ondorioak moteltzeko ekintzak gauzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ekintzarik ez 2008an 	
Giza osasuna eta hiri ingurunea	<p>Sistematikoki behatzea eta ikastea Klima aldaketak pertsonen osasunean sortzen dituen ondorioak ikustea eta aztertzea: klimaren bilakaera eta muturreko meteorologia egoerak aurreikusteko aukera ematen duten datuekin eredu bat sortzea eta jarraipena egitea, baita ondorioak arintzea ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Urola Kosta eskualdean uholdeek sor ditzaketen kalteei buruzko azterketa egin dugu. ✓ Klimari lotutako datuen jarraipen koordinatua egiten ari gara, serie luzeak lortzeko oso adierazgarriak diren meteorologia-estazioak aukeratuz, instalatuz eta kontrolatuz. ✓ Halaber, EAEko klimatologiaren eta ozeanografiaren eredu bat sortzeko sistema ezartzeko lehenengo urratsak egiten ari gara. 	
	<p>Irizpideak definitzea eta plangintza egitea Klima aldagaia osasun sistemaren eta babes zibilarren plangintza egiteko jarraibideetan txertatzea, baita lurralde antolamendua eta udalerriko plangintza egiteko tresna orokorrak eguneratzea ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ EAEko ibaien eta erreken LPSren edukiak berrikusten ari gara. 	

Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak	
Giza osasuna eta hiri ingurunea	<p>Baliabideak eta azpiegiturak egokitzea eta erabilgarri jartzea</p> <p>Zerbitzu publikoak (osasun arlokoak eta babes zibilekoak), hiri azpiegiturak eta kudeaketa ereduak klima aldaketari lotuta etengabe eguneratuta egotea lortzeko ekintzak egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaur egun, meteorologia-datuen jarraipena egiteko hiru gune daude. ✓ Beste alde batetik, meteorologia egoera kaltegarri posiblei aurre egiteko, larrialdietarako protokoloa erabat finkatuta dago, Euskalmeten eta esku hartzen duten gainerako eragileen bidez. 	
	<p>Sistematikoki behatzea eta ikastea</p> <p>Lehenengo sektoreko ekoizpen esparruetan (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza, ehiza...) espezie giltzarriak zaintzeko neurrien jarraipena bermatzea eta definizioa egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Nekazaritzaren, basogintzaren eta abeltzaintzaren gaineko eraginari buruzko azterketa egiten. ✓ Laborantza metodo egokituaren hedapena 	
	<p>Irizpideak definitzea eta plangintza egitea</p> <p>Plangintza tresnak etengabe eguneratzea, bereziki lehenengo sektorea, klima aldagaia eta haren balizko ondorioak kontuan hartzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ekintzarik ez 2008an 	
<p>Baliabideak eta azpiegiturak egokitzea eta erabilgarri jartzea</p> <p>Basogintza sektorean etorkizuneko ondorio posibleak saihestea eta ahalik eta gehien murriztea, hustutegiak kudeatuz eta ekosistemak babestuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ekintzarik ez 2008an 		



3 PROGRAMA: JAKINTZA



Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak	
Klima aldaketari buruzko ezagutza	Oinarrizko ikerkuntza eta lankidetzak Klima aldaketari buruzko lerroak jorratzeko, 150 ikertzailez osatutako masa kritikoa lortzea.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Klima aldaketari buruzko BERC zentroa (Basic Excellence Research Centre) sortu dugu. Lan-lerroak zehaztu eta martxan jarri ditugu. ✓ Bi Etorrek proiektuak garatzea eta diruz laguntzea: klima aldaketara zein meteorologiara eta klimatologiara egokitzea. Garraio adimendunari buruzko ikerketa zentro korporatiboa sortu dugu. 	
	Ikerketa aplikatua Enpresa pribatuak inplikatu dira eta 2012rako klima aldaketari buruzko 25 ikerketa proiektutan hartuko dute parte.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zenbait enpresarekin lehenengo harremanak izan ditugu, EUP zuzentarauari jarraiki produktuak berritzeari buruzko pilotaje bat egiteko, 	
	Zeharkako elementuak 2012rako enpresek Teknologien Euskal Sarean eta klima aldaketari buruzko nazioarteko gutxienez zortzi proiektutan parte hartzea bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Unibertsitate sistemaren barruan, Ingurumen Ekonomiako Unitatearen bidez (EHU-Ihobe). 	




4 PROGRAMA: HERRITARRAK ETA ADMINISTRAZIOA

Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak
Gobernua	<p>Jarduera orokorrak eta erosketa berdea</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren hornidura, obra eta zerbitzu erosketen % 30ean ingurumen irizpideak kontuan hartzea lortzea (zehazki, klima aldaketari buruzkoak). Klima aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen ondorio ekonomikoak eta sozialak ezagutzea, <i>ad hoc</i> azterketen bidez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Erosketa publiko berdeari buruzko gidaliburu bat argitaratu dugu. ✓ Ikastetxe guztietan paperaren eta tonerraren gaikako bilketa. ✓ Gainera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza guztietan hondakinak gaika biltzeko sistemak daude. ✓ Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusiak ibilgailuak, informatika ekipoak, etab. erosteko lizitatutako kontratuetan energia aurrezpenari eta eraginkortasunari buruzko irizpideak kontuan hartu dira. ✓ 2007ko Ekobarometro Sozialean, klima aldaketari buruzko gaiak kontuan hartu dira.
	<p>Lantokian eta mugikortasunean energia aurrezteak eta energia eraginkorra erabiltzea</p> <p>2012rako, Eusko Jaurlaritzaren jarduerak sortzen dituen BEG isurketak % 20 murriztea, 2008arekin alderatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Bizkaia eraikineko mugikortasun iraunkor eta segururako plana gauzatu da. ✓ Era berean, Madariaga Dorretxean, mugikortasun plan propioa egiten ari dira. ✓ EEEK eta lhobek energia eraginkortasuna hobetzeko hitzarmen bat sinatu dute. ✓ Ekoskan: Arabako Foru Aldundiaren hiru egoitzetan Ekoskan ziurtagiri-sistemaren azterketa martxan jarri da. ✓ GBMrekin akordioa, Ekopassen bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidaiek sortutako isurketak konpentsatzeko.
	<p>Hezkuntza eta heziketa</p> <p>Eusko Jaurlaritzako langileen % 30i BEG isurketak murrizteko jardunbide egokien inguruko ikastaroa ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ HAEEn bidez, Eusko Jaurlaritzako teknikarientzat isurketak murrizteari buruzko trebakuntza ikastaro bat martxan jartzea.



Sektorea	Jarduera	Gauzatutako Ekintzak	
Toki administrazioa	<p>Jarduera orokorrak eta erosketa berdea</p> <p>Toki administrazioen eguneroko lanean klima aldaketari buruzko irizpideak erabakitasunez eta modu iraunkorrean aintzat hartzea: 20.000 biztanle baino gehiagoko herrietan, BEG isurketak murrizteko programak egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Dagoeneko 17 udalerrik egin dituzte BEG inbentarioak, eta horietako lauk 10.000 biztanle baino gehiago dauzkate. ✓ Donostiak eta Gasteizek dagoeneko gauzatu dituzte klima aldaketaren aurkako planak. ✓ Klima aldaketari eta udalerrietan isurketen inbentarioak egiteko metodologiari buruzko ordenantza-ereduen ekitaldeak sortu dira. ✓ Klima aldaketari buruzko ordenantza-eredua diseinatuta dago jadanik. ✓ Eusko Jaurlaritzarako erosketa publiko berdea toki erakundeen eskura ere badago. 	
	<p>Lantokian eta mugikortasunean energia aurrezte eta energia eraginkorra erabiltzea</p> <p>2012rako, hamar udalerritan, udalerriko jarduerak eragindako BEG isurketak % 10 murriztea, 2008arekin alderatuz: mugikortasun-planak eta ibilgailu pribatuen orde, beste garraiobide batzuk erabiltzea sustatzeko tresna fiskalak ezartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Ad hoc</i> diru-laguntza lerroak daude, adibidez: energiaren eraginkortasuna eta aurrezpena handitzen duten udalerrientzako <i>ad hoc</i> sari bat. ✓ EEEK eta lhobek energia aurrezpen eta eraginkortasun arloan berritzaileak diren lau proiektu diruz laguntzeko hitzarmen bat sinatu dute: Bilbon, Donostian, Beizaman eta Durangon egingo dituzte. ✓ Udalerririk askok mugikortasun iraunkor eta segururako planak dauzkate jadanik. ✓ Bi udalerririk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko <i>ad hoc</i> zergak dauzkate jadanik, isurtzen duten BEG kopuruaren araberakoak. 	
	<p>Hezkuntza eta heziketa</p> <p>2012an udal teknikarien eta toki administrazioiko gainerako langileen % 20 BEG isurketak murrizteko jardunbide egokietan trebatuta egotea..</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ GAP programa martxan jartzea: etxeko eguneroko jardueren bidez planetan dugun eragina murriztea da ekimen horren helburua. ✓ HAE Eren bidez, tokiko erakundeetako teknikarientzat isurketak murrizteari buruzko trebakuntza ikastaro bat martxan jartzea. 	
Herritarrek mugiaraztea	<p>Informazioa eta sentsibilizazioa</p> <p>Klima aldaketari eta horren ondorioei buruzko ezagutza eta kontzientziarazioa handitzea, energia etiketak erabiltzea, garraiobideen isurketak murriztea, etxean energia aurrezte, eraginkortasuna bultzatzea eta hondakin gehiago birziklatzearen aldeko apustua egitea. Helburua da 2012an herritar bakoitzak urteko 2,6 Tm CO2 baino gehiago ez sortzea aipatutako arloetan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ EAEko garraiobide publikoetako tarifetan kontuan hartzeko neurriak gauzatzen ari dira (Gipuzkoan). ✓ Halaber, komunikabideen bidez sentsibilizazio kanpainak egiten dira etengabe, mugikortasun iraunkorragoa eta garraiobide publikoak erabiltzea sustatzeko. ✓ EiTBk klima aldaketari buruzko lau mikrosaio emititzea, Eguraldia formatuan ✓ ILASen eta EiTBren artean klima aldaketari buruzko multimedia sortzea 	
	<p>Hezkuntza eta heziketa</p> <p>Diruz lagundutako ikastetxe guztiek (% 100) klima aldaketari buruzko dibulgazio kanpainak edo beste edozein ekintza egin izana (trebakuntza, ikerketa pedagogikoa, etab).</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 17 GARATU berrikuntza proiektu gauzatu dira, eta horietan EAE osoko 58 irakasleek parte hartu dute. ✓ Era berean, nabarmentzekoa da Sukarrietak urtero antolatzen duen zientziaren astea. ✓ Klima aldaketari buruzko hainbat eskuliburu eta gida didaktiko egin ditugu. ✓ Eskolako Agenda 21: hezkuntza ez-unibertsitarioaren sareko 400 irakasle baino gehiago klima aldaketan trebatu dira. ✓ Ia 100 ikastetxek hartzen dute parte Eskola Agenda 21en, klima aldaketaren gain 	



II ERANSKINA
Ingurumen plan sektorialen ebaluazio sintetikoak



INGURUMEN URTEKARIA 08 ANUARIO AMBIENTAL

INGURUMENAREN EBALUAZIOA ETA BILAKAERA EAEN
EVOLUCIÓN Y EVALUACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE EN LA CAPV

